

gizartea eta kultura garaikidea

PROGRAMA  
EUSKARA

URTARRILA OTSAILA MARTXOA 2022





Kanpokoaren eta barnekoaren arteko oreka, zabalaren eta hurbilekoaren artekoa. Zenbaki honen azalaren ilustrazioa Tomo Studiok Arriquirreko fatxadarako egindako proposamen grafikoaren parte da. Hiru zatitan banatutako irudi bat, Azkuna Zentroa fabrika bizi bat bezala erakusten duena, giza osagaia makineria guztia batera funtzionatzeko modua ematen duen izerdia dela.



- 7 Kultura-programazioa, elkarrizketa irekia
- 9 *Una voz para Erauso. Epílogo para un tiempo trans.* Cabello/Carceller
- 12 Gutun Zuria Bilbao. Mundu oro itzuliaren itzulia
- 13 Zinemagileak izango dira 2022ko ikus-entzunezko programazioaren protagonistak
- 14 Hiruhileko honetan gurekin izango dira...

### PROGRAMAZIOA

- 16 *Roma Akademia.* Erakusketa
- 18 *Roma Akademia.* Programa Publikoa. Marta Ramos-Yzquierdo. *Trabajar menos. Hacer más / Hacer el indio en el 77.* Irakurketa performatiboa
- 18 *Roma Akademia.* Programa Publikoa. Estíbaliz Sádada. *Procesos romanos.* Proiektuen aurkezpena
- 18 *Roma Akademia.* Programa Publikoa. Jorge Luis Marzo. *Las videntes. Imágenes en la era de la predicción.* Liburuaren aurkezpena
- 20 Javier Arbizu. *Talud mediodía.* Erakusketa
- 22 Julián Pacomio. *Apocalipsis entre amigos o el día simplemente.* Performancea
- 24 Josune Urrutia. *Crónicas complejas.* Erakusketa eta aurkezpena
- 25 Sra Polaroiiska. *Perlas, bailes, deseos, dudas y hallazgos.* Performancea
- 26 Sleepwalk Collective. *Swimming Pools.* Antzerkia
- 28 Isabel de Naverán. *Envoltura, historia y síncope.* Hitzaldi performatiboa eta liburua
- 30 Ainara LeGardon + Marja Ahti. Soinu performancea
- 31 LIEBRE+ *For Stella (1961)* de Cornelius Cardew interpretado por Alejandro Mingot. Musika esperimental / kontzertuak
- 32 Oscar Martín a.k.a Noish. *Meta Music Machines.* Musika esperimental / kontzertua
- 33 Jesus Pueyo. *El Hombre Orquesta.* Instalazioa
- 34 Zinemateka. Iciar Bollain. *Errealitatearekiko konpromisoa*
- 36 Borja Crespo & Raquel Meyers. *Aukeratu zeure normaltasuna.* Aurkezpena eta tailerra





### **SORKUNTZA ARTISTIKOKO PROIEKTUAK**

- 40 Higinia Garayk, Marine des Mazeryk eta Jimmy Beaulieuk Komikiaren Nazioarteko Egonaldiari ekingo diote. Komikiaren nazioarteko egonaldia
- 42 Aimar Arriola. *Un deseo de forma*. Ikertzaile Azkidea
- 44 Babestu. Sorkuntza garaikidea babesteko programa
- 45 Artista Az Kideak
- 46 Ikertzaile Az Kideak
- 47 Kolektibo egoiliarra. *Kinu*. Tractora Koop. E.


### **HEZKUNTZA PROGRAMA**

- 54 Adolfo Serra. Ilustrazio, sormen eta istorioen sorkuntzako tailerra
- 54 Ibilbide ludikoak
- 54 Eskola-ikasleentzako hezkuntza-programa
- 55 Zinemaz Blai. Eskolatik Zinemara
- 55 Komikiko ezinbesteko figuren inguruko elkarrizketak eta podcasta
- 56 Oscar Martín a.k.a Noish. Tailerra: *Computer Music con Pure Data*
- 56 Musika esperimental eta soinu-artearen hastapenetako tailerrak
- 57 Mitusu, haur eta gazteentzako antzerki-aretoa

### **AZ**

- 60 Bisitak eta deribak espazioan eta programazioan zehar
- 62 Tailer berriak Jarduera Fisikoko Zentroan 2022. urtarrila - otsaila - martxo
- 63 Azkuna Zentroa argitalpenak
- 64 Informazio orokorra





# Kultura-programazioa, elkarrizketa irekia

Azkuna Zentroak luzapen eta formatu desberdineko programazioarekin hasiko du 2022. urtea: erakusketak eta kontzertuak, zuzeneko arteak eta letrak, topaketa handiak eta hausnarketarako eta eztabaidarako espazio intimoagoak.

Eta artistak ezinbesteko eta beharrezko konplizeak dira, gizarteari arte bisualetatik, zuzeneko arteetatik, zinema eta ikus-entzunezkoetatik, literaturatik, kultura digitaletatik eta gizartetik proposatzen zaion elkarrizketa askotariko eta poliedriko horretan.

"Roma Akademia" erakusketaren ondoren, hiruhileko honetan "Una voz para Erauso. Epilogo para un tiempo trans" erakusketa inauguratuko da, Azkuna Zentroak ekoitzia Cabello/ Carceller kolektibo artistikoarekin (Helena Cabello eta Ana Carceller), eta Paul B. Preciado filosofo, arte-komisario eta idazleak komisariatua. Gorputza, generoa edo identitatea kategoria anitz eta aldakor gisa islatzen duen proiektua.

Íciar Bollaíni eskainitako ziklo monografiko batek emango dio hasiera Zinematekaren programazioari; eta, ondoren, film-sorta berezi bat izango da, lehen film luzeekin zinemaldirik aipagarrienetan ikusleen eta epaimahaiaren aintzatespena jaso duten emakumezko zinemagileek zuzendutakoak. Zinema hezkuntzarekin lotuz, urtarrilean Zinemaz Blai – Eskolatik zinemara bitartekotza-programa berria jarriko da abian, Golem Alhóndiga zinema-aretoekin elkarlanean, ikus-entzunezko ekoizpena eskolako ikusleen pentsamendu kritikoa sustatzeko tresna gisa bideratzeko.

EszenAZ, arte eszenikoen denboraldia, Kubo Baltzara zabalduko da. Dantzarako eta ekintza performatiboetarako sortutako Lantegia 1 espazio eszeniko berrian, besteak beste, Sra. Polaroiiska kolektiboak artista AZkide egoiliar gisa egindako amaierako ekintza eta Julián Pacomio artistaren goizaldeko performancea izango ditugu ikusgai.

Hiruhileko honetako hitzordu nagusietako bat Gutun Zuria Bilbao izango da, Letren Nazioarteko Jaialdia, eta aurten itzulpengintza izango du ardatz, ez bakarrik literatura-sistemakoa, arte-diziplinen arteko zubi gisa hartuta ere bai.

Horrekin batera, Azkuna Zentroak aurrera jarraitzen du elkartzeko eta sortzeko gune eta plataforma gisa hazten, sorkuntzari laguntzeko Babestu programaren barruan dituen proiektu berriekin eta beste testuinguru batzuetan -kasu honetan Quebecen, Angoulême eta Bilbon- sortzaileen topaketa eta egonaldia bultzatzen dituen Komikiaren Nazioarteko Egonaldi berriarekin.

Proiektu horiek guztiek bitartekotzako programa publiko zabala dute, sorkuntza garaikidea era askotako ikusleengana hurbiltzeko eta hausnarketa kolektiborako eta jakintzak trukatzeko espazioak sortzeko.

# ERAKUSKETAK

2022KO MARTXOAREN 10ETIK IRAILAREN 25ERA

## **Cabello/Carceller**

*Una voz para Erauso*

Epílogo para un tiempo trans

Komisarioa: Paul B. Preciado

ERAKUSKETA ARETOA

2022KO URRIAREN 27TIK 2023KO OTSAILAREN 26RA

## ***Somewhere from here to heaven***

Komisarioa: Garbiñe Ortega

ERAKUSKETA ARETOA

2022KO APIRILA

## **Sahatsa Jauregi**

*Aizkora*

BAT ESPAZIOA. LANTEGIA. IDEIEN LABORATEGIA

2022KO MAIATZAREN 10ETIK IRAILAREN 18RA

## **Isidoro Valcárcel Medina**

*Arquitecturas prematuras*

BAT ESPAZIOA. LANTEGIA. IDEIEN LABORATEGIA

2022KO AZAROAREN 29TIK 2023KO OTSAILAREN 26RA

## ***Ciencia fricción. Vida entre especies compañeras***

Komisarioa: María Ptqk

MEDIATEKA GALERIA

2022-2023



# *Una voz para Erauso*

## Epílogo para un tiempo trans

### Cabello/Carceller

Paul B. Preciadok komisariatua  
Azkuna Zentroa - Alhondiga Bilbaok ekoitzitako erakusketa

2022ko martxoan, [Cabello/Carceller \(Helena Cabello eta Ana Carceller\)](#) kolektibo artistikoaren lana egongo da ikusgai erakusketa-aretoan, hain zuzen, [Ahots bat Erausorentzat](#) erakusketa, kontakizun historikoaren eraikuntza eta queer eta trans politika garaikideak harremanetan jartzen dituen proiektua.

Diziplina arteko lanaren bidez, Cabello/Carceller-ek instalazioa, performancea, fikzioko kontakizuna eta bideoa erabiltzen ditu, praktika bisualetako irudikapen-modu hegemonikoei buruz galderak egiteko eta alternatiba kritikoak proposatzeko.

Kasu honetan, artistek aurkitu zuten erretratu liluragarri bezain ezohiko bat da proiektuaren abiaburua: Juan van der Hamen-ek (ziurrena) Espainiako itsas armadako alferetz gisa jantzitako Katalina Erausori 1626an egin ziona, gaur egun Kutxa bildumakoa dena. Erauso 1592an jaio zen Donostian, emakumezko sexua esleitu, eta Katalina izena eman zioten. Sarritan "moja alferetz" izenez da ezagunagoa, neurri batean, bere autobiografiari esker, hor, "gizon gisa jantzita" komentutik ihes egin zuen neska gazte baten abenturak kontatu baitzituen, gero soldadu eta merkatari modura Espainiako inperioak Txiletik Mexikora kolonizatutako lurretan ibili zenarenak (besteak beste, Francisco Loyola, Juan Arriola, Alonso Díaz Ramírez de Guzmán... eta Antonio Erauso izenak hartuta).

Erakusketaren komisario Paul B. Preciadok nabarmendu duenez, «gizon gisa jantzitako Erausoren erretratu arte errenazentistaren historiako lehen erretratu "trabestizat" har daiteke». Baina, argitzen duenez, Erauso, bere erretratu bezala, itzalak dituen irudi bat da.

«Olio-pinturaren atzealde beltz-beltzean aurpegi zorrotz bat agertzen da, baina begirada kezkarriki gozoa duena, eta, hala, ez dago aukerarik maskulinitzat edo femeninitzat jotzeko. Alabaina, maputxeen genozidioan inplikaturik egon zenez eta merkatu kolonialean izan zuen jarreraren ondorioz, figura deserosoa da trans historian». Horregatik, argi-ilunarena da erakusketaren estetika, Erausoren erretratuarena bezala.

Cabello/Carceller-ek Erausoren "erretratu" berri bat egin dute proiektu artistiko honetarako, eta trans pertsonaia berrien

galeria batek interpelatzen du. Azkuna Zentroak ekoiztutako ikus-entzunezko lan hau Doxa Produkzioak-ekin filmatu da, Alberto sin Patrón izan da jantzien diseinatzailea eta Mursego arduratu da musikaz.

Horrela, erakusketa erretratuen galeria analogiko-digital gisa eraiki da, non Erausok (bai 1626ko erretratu historikoak eta kopia, bai Cabello/Carceller-en erretratu berria) Cabello/Carceller-en aurreko lanaren beste irudikapen batzuekin bat egiten duen, besteak beste, lan hauekin: *Autorretrato como fuente*, 2001ekoa, edo *Sin título (Autorretrato)*, 1994koa; Archivo: *Drag Modelos* (2007-prozesuan), *Movimientos para una manifestación en solitario* (2021) eta *Lost in Transition\_un poema performativo*.

Erakusketa-proiektua osatzen da jardueren programa publiko batekin, erakusketaren katalogoarekin eta bigarren hezkuntzako ikastetxeei zuzendutako bisita-tailerren hezkuntza-programa batekin.

*Ahots bat Erausorentzat* erakusketa martxoaren 10ean inauguratuko da eta irailaren 25era arte egongo da ikusgai.

«...FRAI NICOLASEK DIO (ZE) VERACRUZEN EZAGUTU ZUEN GIZONEZ JANTZITA, EZPATA ETA SASTAKAIAREKIN, ZILARREZKO ESKU-BABESEKIN, ILETXO ZIZTRIN BATZUK BESTERIK EZ ZUELA BIZAR GISA. ETA EDERRENA ZEN EDERREN ARTEAN... ANTONIO ERAUSO JAUNA ZUEN IZENA»

**Catalina de Erauso,**  
*La historia de la Monja Alférez, (1626)*



## CABELLO / CARCELLER

Cabello/Carceller laurogeita hamarrek hamarkadaren hasieran hasi ziren elkarlanean, praktika bisualetan generoa eraikitzeko modu hegemonikoez galdekatzeko asmoz, eta queer jarreretatik alternatiba kritikoa proposatuz. Beren proiektu artistikoak uztartzen dituzte ikerketarekin, idazketarekin, komisariotzarekin eta irakaskuntzarekin. 2015ean beren lana aukeratu zuten Veneziako 56. Bienaleko Espainiako Pabiloirako. Bakarkako erakusketetan erakutsi dute lana, besteak beste,

MUACen (Mexiko Hiria, 2019), Madrilgo CA2Men (2017), Vigoko MARCon eta Valenziako IVAMen (2016), eta Danimarkako, Filadelfiako, Madrilgo eta Buenos Airesko arte-zentroetan. Beren proiektuak erakusketa kolektiboetan ere erakutsi dira: Parisiko Pompidou Zentroan (2017), Bartzelonako MACBAn (2020), Tranzituen (Bratislava, 2018), Museo da Electricidade-n (Lisboa, 2015), MNCARS-en (Madril, 2013), Casino Luxembourg-en eta New Yorkeko Brooklyn Museum-en (2007). *re.act feminism. A performing archive* artxiboaren parte dira, eta *Art and Queer Culture* (Phaidon Press) eta Jack Halberstam-en *The Queer Art of Failure* (Duke University Press) argitalpenetan agertzen dira, besteak beste, baita egile beraren *Female Masculinity* liburuaren gaztelaniazko bertsiorean hitzaurrean ere.



## PAUL B. PRECIADO

filosofoa, arte-komisarioa eta idazlea da. Ezaguna da nazioartean gorputzaren, generoaren eta sexualitatearen politikei buruz egin duen lanagatik. Fulbright beka jaso zuen; lehenik, Filosofia eta Generoaren Teoria ikasi zuen, New Yorkeko New School for Social Research-en, eta, bertan, Jacques Derrida-ren eta Agnès Heller-en ikaslea izan zen; gero, Princeton University-n Arkitekturaren Teoria doktoratu zen. Beste zeregin instituzional batzuen artean, Bartzelonako Museu d'Art Contemporani-n Programa Publikoen eta Ikasketa Independenteen Programaren zuzendaria izan da, baita Programa Publikoen komisarioa documenta 14 Kassel eta Atenasen ere, eta Taiwan-go Pabiloiaren komisarioa Venezian, Shu Lea Cheang artistarekin. Gorputzaren Filosofia irakasten du New York Unibertsitatean, eta Europako beste unibertsitate batzuetan. *Manifesto Contra-sexual; Testo Yonqui, Sexo, drogas y biopolítica; Pomotopia; Un Apartamento en Urano; eta Yo soy el monstruo que os habla* liburuak egin ditu, denak Anagramak argitaratuak.

# gutunzuria bilbao

LETREN NAZIOARTEKO JAIALDIA | FESTIVAL INTERNACIONAL DE LAS LETRAS | INTERNATIONAL LITERATURE FESTIVAL

## MUNDU

## ORO

## ITZULIAREN

## ITZULIA

---

2022KO MARTXOAREN  
28TIK, APIRILAREN 2RA

Gehiago jakin nahi duzu?  
Jarraitu informazio guztia  
hemen: [azkunazentroa.eus](http://azkunazentroa.eus)

---



## Zinemagileak izango dira 2022ko ikus-entzunezko programazioaren protagonistak

Aurten, zinemako programazioak ibilbide profesional desberdinetako emakumezko zinemagileen lanean jarri du arreta. Ikus-entzunezko ekoizpen garaikidean, genero guztiak jorratzen dituzten zinemagileen presentzia nabarmentzen da; munduaz egiten duten interpretazioa, ulertzeko modua eta hobetzeko proposamenak ezinbesteko garrantzia dute.

Urtarrilean hasiko da Zinematekaren programazioa, Iciar Bolláin zuzendariari eskainitako zikloarekin, arrakala zabaldu eta Espainiako zinemari izaera transnazionala eman zioten emakume zuzendarien belaunaldi baten paradigma gisa hartuta. Hurrengo zikloak emakumeek zuzendutako zinema berria izango du ardatz, eta film-sorta berezi bat izango da ikusgai, lehen film luzeekin zinemaldirik aipagarrienen ikusleen eta epaimahaiaren aintzatespena

jaso duten emakumezko zinemagileek zuzendutakoak.

Gainera, 2022an ikus-entzunezkoa bete-betean sartuko da erakusketa-aretoan, eta Garbiñe Ortega zinema-kuradoreak komisariatutako "Somewhere from here to heaven" proiektuarekin konektatuko du Zinemateka. Urriari inauguratuko den erakusketa hori Bruce Baillieren lanetatik abiatzen da, Ipar Amerikako zinema-abangoardiako zinemagilerik garrantzitsuenetako bat eta zinema esperimentalaren sustatzaileetako bat baita.

Programazioa osatzeko, Golem Alhóndiga eta Azkuna Zentroaren arteko lankidetzaren emaitza den Zinemaz Blai – Eskolatik zinemara bitartekaritza-programa berria izango da, ikasleei zuzendua. Ziklo horren bidez, ikus-entzunezko ekoizpena pentsamendu kritikoa sustatzeko eta hezteko tresna gisa bideratu nahi da.

# Hiruhileko honetan gurekin izango dira...

Artistak, komisarioak, kultura-eragileak... Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko programazioa diziplina desberdinetako pertsonen konplizitatearen emaitza da, haiek gure proposamenak balioesten eta aberasten baitituzte, era askotako ikusleen komunitateei zuzendutako ekarpenekin. Hiruhileko honetan gure artean izango ditugun proiektuak eta pertsonak erakutsiko ditugu hemen, aurrean abian jarri ditugun elkarrizketen parte direnak.



**Josune Urrutia**  
Ilustratzailea



**Javier Arbizu**  
Artista eta komisarioa



**Raquel Meyers**  
Artista



**Oier Iruretagoiena**  
Artista



**Laida Lertxundi**  
Artista Az-Kidea



**Sra. Polaroiska (María Ibarretxe y Alaitz Arezana)**  
Artista Az-Kideak



**Usue Arrieta**  
Artista



**Ainara Elgoibar**  
Artista



**Aimar Arriola**  
Komisarioa eta ikertzaile  
Az-Kidea



© Mátxalen de Pedro

**Isabel de Naverán**  
Ikertzailea, editorea  
eta komisarioa.  
Ikertzaile Az-Kidea



**Sahatsa Jauregui**  
Artista



**Adolfo Serra**  
Ilustratzailea



**Jorge Luis Marzo**  
Arte-historialari eta  
komisarioa



**Paul B. Preciado**  
Filosofoa, arte-komisarioa  
eta idazlea



**Cabello / Carceller**  
Artistak



**Jesus Pueyo**  
Artista



**Marta Ramos-Yzquierdo**  
Komisarioa



**Estibaliz Sádaba**  
Artista etas arte eta lkerketan  
doktoreak



**M. Benito Píriz**  
Artista



**Victoria Ascaso**  
Artista



**Jonathan García Lana**  
Artista



**Urbanbat**  
Artistak




**Macarena Recuerda Shepherd**  
Artista



**Blanca Ortega**  
Artista



**Ion Munduate**  
Koreografoa eta ikertzailea



**Ander Pérez Puelles**  
Artista



**Ainara LeGardon**  
Musikari eta artista



**Marja Ahti**  
Musikari eta konposatzailea



**Higi Vandis**  
Ilustratzailea



**Marine Des Mazery**  
Ilustratzailea



**LIEBRE**  
Javier Pedreira, Paloma Carrasco y Wade Matthews  
Soinu-artistak



**Oscar Martín a.k.a Noish**  
Soinu-artista



**Andrea Rodrigo**  
Ikertzailea eta komisarioa



**Jimmy Beaulieu**  
Ilustratzailea



**Oscar Gómez Mata**  
Artista Az-Kidea



**David Bestué**  
Artista



**iara Solano**  
Artista, ekoizle eta komisario independentea



**Miquel García**  
Artista



**Elena Aitzkoa**  
Artista



**Julián Pacomio**  
Artista, performerra eta komisarioa.



Arg: Ixone Sadaba

ARTES BISUALAK / ARTE BIZIAK / ZINEMA  
ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK / LITERATURA  
**2021 URR. 29 > 2022 OTS. 6**

## *Roma Akademia*

Komisarioa: Jesús Donaire



Otsailaren 6ra arte zabalik egongo den *Roma Akademia* erakusketak aurkezten dituen lanak eta proiektuak Erromako Espainiako Errege Akademiako 146 eta 147 promozioetako 45 artista egoiliarrek egin dituzte, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziaren (AECID) urteko bekaren bidez.

*Roma Akademia* erakusketak erakusketa-gune handi bihurtzen du Zentro osoa lehen aldiz: arte bisualen proiektuak erakusten dituen Erakusketa Areto nagusia, arte eszenikoetara eta ikus-entzunezkoetara bideratutako Lantegia. Ideien Laborategia, instalaziorik handienak hartzen dituen Ataria; eta musika eta letretarako lekua den Mediateka galeria.

**Jesus Donairek** komisariatu du erakusketa, eta diziplina eta ibilbide desberdinetako artisten elkarbizitzaren emaitza da. Egungo praktika artistikoei eta ikerketa teorikoei buruzko panoramika osatzen du, pintura, eskultura, argazkigintza, arte eszenikoak, bideoa, zinema, arkitektura, antzerkia, literatura, moda eta zaharberritzea ardatz hartuta.

Proiektua osatzeko, **Estibaliz Sádaba**, **Taxio Ardanaz**, **Adolfo Serra**, **Jorge Luis Marzo**, **Marta Ramos-Yzquierdo** eta beste artista batzuekin egindako jardueren programa publiko bat izango da, eta bigarren hezkuntzako ikastetxeei zuzendutako bisita-tailerren hezkuntza-programa bat ere prestatu da, ikasleei arte-lengoaiari aniztasuna hurbiltzeko asmoz. Gainera, *Roma Akademia* erakusketaren esparruan, erakusketan eta haren katalogoan parte hartzen duten artisten argitalpen batzuk aurkeztuko dira.

////////////////////////////////////

2021eko urriak 29 >  
2022ko otsailak 6

**Bisita iruzkinduak (45')**

Ostegun guztietan, 18:00etan  
eta 19:00etan

Informazio gehiago  
azkunazentroa.eus orrialdean.

////////////////////////////////////



#### Artistak:

**Taxio Ardanaz** (Iruña, 1978), **José Ramón Amondarain** (Donostia, 1964), **José Ramón Ais** (Bilbo, 1971), **Itziar Barrio** (Bilbo 1976), **Carla Berrocal** (Madril, 1983), **Igor Bragado** (Gernika, 1994), **Antonio Buchannan** (Madril, 1984), **Ana Bustelo** (Palencia, 1982), **Andrea Canepa** (Lima, 1980), **Joana Cera** (Bartzelona, 1965), **Nicolás Combarro** (A Coruña, 1979), **Jorge Cubero** (Madril, 1996), **Isolina Diaz** (Gran Canaria, 1973), **Lara Dopazo** (Marín, 1985), **Silvia Fernández** (Madril, 1990), **María Ángeles Ferrer** (Palma de Mallorca, 1973), **Pablo Fidalgo** (Vigo, 1984), **Pedro G. Romero** (Aracena, 1964), **Federico Guzmán** (Sevilla, 1964), **Begoña Huertas** (Gijón, 1965), **Julia Huete** (Ourense, 1990), **Susanna Inglada** (Banyeres del Penedés, 1983), **Montserrat Lasunción** (Canet de Mar, Bartzelona, 1977), **Jana Leo** (Madril, 1965), **Jorge Luis Marzo** (Bartzelona, 1964), **María Moraleda** (Toledo, 1988), **Irene Clémentine Ortega** (Bilbo, 1986), **Javier Pividal** (Cartagena, 1971), **Jorge Portillo** (San Salvador, El Salvador, 1973), **Enrique Radigales** (Zaragoza, 1970), **Pantxo Ramas** (Milán, 1979), **Marta Ramos-Yzquierdo** (Saint Mandé, Frantzia, 1975), **Estibaliz Sádaba** (Bilbo, 1963), **Fernando Sánchez-Cabezudo** (Madril, 1979), **Borja Santomé** (Vigo, 1992), **Adolfo Serra** (Teruel, 1980), **Begoña Soto** (Sevilla, 1964), **Claudio Sotolongo** (La Habana, Cuba, 1982), **Eduardo Soutullo** (Bilbo, 1968), **Anna Talens** (Carcaixent, Valencia, 1978), **Javier Verdugo** (Sevilla, 1949), **Manuel Vilas** (Barbastro, 1962), **María del Mar Villafranca** (Granada, 1961), **Tono Vizcaino** (Valencia, 1985), **Ana Zamora** (Madril, 1975)

Info gehiago: 18 eta 19 orr.

## Marta Ramos-Yzquierdo

Irakurketa performatiboa. *Trabajar menos. Hacer más / Hacer el indio en el 77 (Lan gutxiago egin. Gehiago egin / Indioarena egin 77an)*

Roma Akademia erakusketako artista den Marta Ramos-Yzquierdok, *Trabajar menos. Hacer más* bere proiektuaren barruan, *Hacer el indio en el 77* hitzaldi performatiboa proposatu du, kuradoreak Erroman egin zuen bidaian zeharreko ibilbide gisa, lan egiteak zer esan nahi duen edo zer esan nahi dezakeen ulertzeko eta eginkizuna praktika artistikoetatik nola birpentsatu jakiteko.

Aurretik, Marta Ramos-Yzquierdok tailer bat eskainiko du urtarrilaren 11n, Azkuna Zentroko artista eta ikertzaile egoiliarrekin hitzartuta, arlo artistikoko lanak gizartean izan dezakeen eginkizunari buruz hausnartzeko.

////////////////////////////////////

### Irakurketa performatiboa:

Urtarrilak 12, asteazkena

Bastida Aretoa

18:30

////////////////////////////////////

### Tailerra: *Trabajar menos.*

*Hacer más*

Urtarrilak 11, asteartea

Iparraguirre Aretoa

////////////////////////////////////

## Estíbaliz Sádaba

Aurkezpena: *Procesos romanos (Erromako prozesuak)*

Estíbaliz Sádaba artista bisual eta Arte eta Ikerketan doktoreak Erromako Espainiako Akademian izan dituen egonaldietan egindako bi lanak gauzatzeko PROZESUAK aurkeztuko ditu: *Soberakinak. Erromako hiriaren kartografia genero-ikuspegitik egiteko oharra* (2017) eta *Etxeko subertsioak* (2020).

////////////////////////////////////

### Proiektuen aurkezpena

Urtarrilak 19, asteazkena

18:30

Mediateka. TK202.

////////////////////////////////////

## Jorge Luis Marzo

*Las videntes. Imágenes en la era de la predicción*  
liburuaren aurkezpena

Jorge Luis Marzo (Bartzelona, 1964) arte-historialari eta erakusketen komisarioak Erromako Espainiako Akademian izandako egonaldian idatzitako *Las videntes. Imágenes en la era de la predicción* liburuak aurkeztuko du.

Fikziozko kontakizunak eta pasarte historiko zehatzak tartekatuz, *Las videntes* liburuak ibilbidea marrazten du, makinak antzinako profezien hizkuntzaz nola bereganatu diren erakutsiz, prozesatzen dituzten irudien bidez dena eta denak interpretatu eta epaitu ahal izateko. Adimen artifizialak benetako makina *ikusmendunak* sortu ditu.

////////////////////////////////////

### Asteazkena, otsailak 3

18:30

Mediateka. TK202

////////////////////////////////////

 [soymenos.net](http://soymenos.net)



Informational text panel, likely a description of the artwork or exhibition.

ARTE BISUALAK / KOMISARIO BERRIAK /  
ERAKUSKETA

OTS. 8 > OTS. 27

**KBK**  
KOMISARIO BERRIAK

# Javier Arbizu

## *Talud mediodía (Ezponda eguerdia)*

Artistak: Julián Pacomio eta David Bestué

ERAKUSKETA OSTIRAL ARRATSALDEAN  
INAUGURATUKO DA, OTSAILAK 4,  
KOMISARIOAREN ETA ARTISTEN ARTEKO  
SOLASALDI BATEKIN, ETA LARUNBAT  
GOIZALDEAN, OTSAILAK 5, JULIÁN  
PACOMIOREN PERFORMANCE BAT IZANGO DA



Zentroan egonaldia izan ondoren, [Javier Arbizuk Talud mediodía](#) proiektua aurkeztuko du. Proposamenak [Julián Pacomio](#) eta [David Bestué](#) artisten lanak bateratzen ditu, haien praktikek zerikusia baitute konbergentzia eta argiarekin.

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak bultzatutako Komisario Berriak programaren esparruan, Arbizuren lanak Bilboko toki ikoniko bat desegiteko prozesua du abiaburu: Artxandako jolas-parkearena. Hortik, "ezpondaren" eta "eguerdiaren" irudiak erreskatatzen ditu, eskulturatik eta performaziotik jarraitasunaren eta aldebereotasunaren ideiak jorratzeko. Leku bat (ezponda, lurrei elkarri eusteko ematen zaien inklinazioa) eta une bat (eguerdia, eguzkia zeruan gorago dagoenean, zerumugaren lerroarekiko igoera eta jaitsiera markatuz eta eguna bitan banatuz) izango dira deribari ekiteko hasierako irudiak, eta deriban [Pacomio](#) eta [Bestuéren](#) proposamenak Azkuna Zentrorako egokitzeko modua aztertuko da. «Komisario gisa nire zeregina izango da artistak entzutea, zaintzea, eta beren praktiketatik ulertzen saiatzea.


////////////////////////////////////

**Erakusketa:**

**Otsailak 4 > 27**

**Lantegia 1**

////////////////////////////////////



#### **JAVIER ARBIZU.**

(Lizarra, 1984) Arte Ederretan lizentziaduna da Salamancako Unibertsitateko Arte Ederretako Masterra (MFA) egin zuen Kaliforniako San Francisco Art Institute-n. Beka hauek jaso ditu, besteak beste: Fulbright, La Casa Encendida-ren Generaciones e Inéditos, Gestión Cultural MAEC-AECID, San Francisco Art Institute Fellowship, San Francisco Art Institute-ren Anne Bremer Memorial Price, San Francisco Art Foundation-en Murphy and Cadogan Award, Salamancako Unibertsitateko Fundación Vicente y García Corseles-en Segundo Vicente eta Guasch Coranty.



#### **DAVID BESTUÉ**

(Bartzelona, 1980) artearen eta arkitekturaren, eskulturaren eta hizkuntzaren arteko erlazioetan interesa duen artista bisuala da, bere lan batzuetan ikusten den bezala. Banakako azken erakusketen artean daude Rosi Amor, Reina Sofia Arte Zentro Nazionalean (2017); *Tramas* Centro Centro-n (2019); *Miramar* Pols-en, Valentzian (2019); *De perder un nombre* Huesca-ko Diputazioan (2020); edo *Pastoral*, La Panera, Lleidan (2021).

**JULIÁN PACOMIO 23. orr.**



Komisario Berriak Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak eta Azkuna Zentroak (Bilbo), Artiumek (Gasteiz) eta Tabakalerak (Donostia) bultzatutako lankidetzako proiektua da, eta komisariotzaren praktika euskal testuinguruan sustatzea eta profesional berriak sortzea du helburu.

ARTE BIZIAK / PERFORMANCEA  
OTS. 5 (lar.)

# Julián Pacomio

*Apocalipsis entre amigos o  
el día simplemente*



Julián Pacomiok *Apocalipsis entre amigos o el día simplemente* lperformancea aurkeztuko du, otsailaren 4a (larunbat) eta otsailaren 5a (igande) bitartean, Javier Arbizuk komisariatutako *Talud mediodía* proiektuaren barruan gauzatua.

Arte eszenikoen piezaka ia lau orduko iraupena du, eta gertakizun-ospakizun-festa batean gorputzek dituzten egoera desberdinak jorratzen ditu.

Julián Pacomioren hitzetan, «Denbora asko daramagu goiz oheratzen. Eguneko jendea gara; gaua, beste batzuen kontua da. Apokalipsiaren zain gaude elkarrekin, denok, hemen. Noizbait, familiarra, intimoa, kezkarri bihurtuko da, eta amaiera era baketsuan, adeitsuan iritsiko da. Zerbait iluna azaleratuko da bizitza salatuz, eta ordutik aurrera ezer ez da berdin izango; oroitzapenek, ordukoek, ez dute gehiago garrantzirik izango; eta sendoenek bakarrik balioko dute, hau da, oraingoek. Ez gara sekula gehiago garaikideak izango, eta eguneko argia baizik ez da geratuko edo [...] kontua da honek ez duela zentzurik, baina gainerakoak ez du zentzurik, baina gainerakoa heriotza da».

Julián Pacomiorekin batera performer hauek arituko dira: Sara Vieira Marques, Marina Dubia, Víctor Colmenero Mir, Nina Botkay, Ángela Millano, Luis Moreno Zamorano eta Matilde Amigo.

////////////////////////////////////  
Otsailak 5, igande, goizaldean  
06:30-10:00  
Kubo Baltza. Lantegia 1  
6€ / 4€ Az txartelarekin  
eta tarifa murriztuarekin.  
Tarifen inguruko informazioa  
azkunazentroa.eus  
webgunean  
////////////////////////////////////



**JULIÁN PACOMIO.**

Artista, performerra eta komisarioa. Bere proiektu eszenikoekin erlaziorik ez duten besteen materialen kopia, remakea, itzulpena egiteko eta jabetzeko ideia aztertzen du. 2018tik aurrera, Ángela Millano koreografoarekin batera lan egin du *Asleep Images* ikerketa-proiektuan.

---

ARTE BISUALAK / ERAKUSKETA ETA AURKEZPEN  
OTS. 15 > MAR. 20

# Josune Urrutia

## Crónicas complejas (Kronika konplexuak)

Josune Urrutia artista bisualak *Crónicas complejas* proiektuaren emaitza erakutsiko du. Zeharkako pentsamendu-, gogoeta- eta sorkuntza-espazio bat da, artearen eta osasunaren inguruko gaiet buruzkoa, Osakidetza Pediatria Unitatearekin lankidetzan eta Babestu. Sorkuntza babesteko programaren esparruan sortua.

*Crónicas complejas* hauen bidez, Josune Urrutiak gonbit egiten digu gaixotasunarekin dugun harremana sozialki eta kulturalki baldintzatzen duten eredu batzuei begiratzera eta esanahi berria ematera. Erakusketa kontakizun kolektibo bat da, eta joan den abenduan 6 eta 18 urte bitarteko pertsona-talde batekin egindako tailer bat du abiaburu. Bertan, gaixotasunari buruz hausnartu zuten, hari buruz hitz eginez, marraztuz eta idatziz.

*Crónicas Complejas* martxoaren 20ra arte bisitatu daiteke Mediatekaren lehen solairuan

////////////////////////////////////

### Erakusketa:

Otsailak 15 > Martxoak 20

Mediateka

////////////////////////////////////

### Proiektuen aurkezpena

Otsailak 15, astearte

18:30

Mediateka. TK202

////////////////////////////////////



Arg: Alejandro Nafria

### JOSUNE URRUTIA

ilustrazioan, album ilustratuan eta komikian trebatu da aldi berean. Artista, ilustratzaile eta marrazkilaria gisa, interes berezia du komunikaziorako eta sozializaziorako funtsezko

baliabide gisa marrazketa behar duten prozesuetan eta tresnetan, hala nola Graphic recording-ean, osasun-munduko medikuntza grafikoan eta marrazketa kolektiboko prozesuetan. Berriki, Eusko Jaurlaritzaren sorkuntza grafikoaren beka irabazi du, *Komikiak eta eleberrirako grafikoak* (2020), eta, orobat, beka jaso du Angoulême-ko (2019) Maison des auteurs-en egoiliar izateko, *Hoy no es el día*. *Historias políticas de arte y cáncer* proiektuarekin (*Gaur ez da eguna*, *Artearen eta minbiziaren historia politikoak*).

Laguntzailea



Osakidetza

ERAKUNDE ENBATERRI-GURUTZETAKO  
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA  
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA  
ERREKREAZIA ENKATERRI CRUCES



ARTE BIZIAK / ARTISTA AZKIDEAK / PERFORMANCEA  
URT. 20 (ostg.)

## Sra Polaroiska

*Perlas, bailes, deseos, dudas y hallazgos*  
(*Perlak, dantzak, desirak, zalantzak eta aurkikuntzak*)

2019az geroztik Azkuna Zentroko artista Azkidea den Sra Polaroiskak (Alaitz Arenzana eta María Ibarretxe) *Perlas, bailes, deseos, dudas y hallazgos* performance hitzaldiarekin emango dio amaiera egonaldiari, eta, bertan, artistek hiru urte hauetan izan dituzten esperientzia batzuk partekatuko dituzte.

Kolektiboak *No hay edad para el ritmo* instalazioarekin ekin zion egonaldiari. Performance kolektibo horren ondoren, *Jakintsuen Kontseilua* proiektua abiarazi zuen, eta topaketa horietan hainbat lanbide-eremutako zortzi emakumek hartu dute parte: Dolores Juliano, Amaia Lasa, Garbiñe Mendizabal, Luisa Menéndez, Adelina Moya, Arantxa Urretabizkaia, Margarita Ledo, Rosa María Calaf eta Teresa Catalán.

Zikloari amaiera emateko fanzine hedatu bat emango da argitara, eta, bertan, gonbidatutako emakumeek partekatutako jakinduria jasoko da, Jakintsuen Kontseilua proiektuko saioetan Abigail Lazkoz, Conxita Herrero, Bea Aparicio, Juana García, Naiara Goikoetxea, Leire Urbeltz, Ruth Juan eta Raisa Alava artistek sortu dituzten kontakizun grafikoekin batera.

////////////////////////////////////  
Osteguna, urtarrilak 20

19:00

Lantegia 1

////////////////////////////////////

 [cargocollective.com/srapolaroiska](http://cargocollective.com/srapolaroiska)

 [sra polaroiska](#)



**SRA. POLAROISKA. MARIA IBARRETXEK eta ALAITZ ARENZANAK** eraturako kolektiboa. Beren obrak zinema esperimentalak, ekintzako arteak, eta sorkuntza eszenikoa eta koreografikoa ditu ardatz. 2017an Gure Artea saria irabazi zuten, sorkuntzan egindako jarduerarengatik, eta nazioarteko arte-zentro eta jaialdi askotan erakutsi dituzte beren pieza eszenikoak eta ikus-entzunezkoak.

ARTE BIZIAK / ANTZERKIA OTS. 24 (ostg.)

## eszenAZ

Azkuna Zentroko arte eszenikoen  
denboraldia  
2021-2022

# Sleepwalk Collective

## *Swimming Pools*

ESZENA GARAIKIDEKO KONPAINIAK  
BERE PROIEKTU BERRIA AURKEZTUKO  
DU, HIZKUNTZA ARTISTIKOAK DESIRARI  
ETA MALENKONIARI BURUZKO PIEZA  
PSIKODELIKO BATEAN UZTARTUZ



Arg.: Iadaliñegra

lara Solanok eta Sammy Metcalfek osatzen duten eszena garaikideko [Sleepwalk Collective](#) konpainiak bere azken some-proiektua aurkeztuko du: *Swimming Pools*. Desirari eta malenkoniari buruzko pieza psikodeliko bat da, etorkizunaren distira itsugarriaren azpian bizia nolakoa izan litekeen erakusten duena.

Bideo-joko retro baten goranzko mailen antzera antolatutako irudizko igerileku batzuen bidez, bakarrizketa intimoen sekuentzia batek gainezka egiten du; eldarnioa eta errebelazioa banatzen dituen ertz finaren gainean orekatutako bakarrizketak dira denak. Bakarrizketa-erako epifania horien isuri-izaera malenkoniatsuak, konpainiak bereizgarri dituen poesia bisual eta testualarekin eta soinu- eta argiztapen-mailako diseinu hipnotikoarekin uztartuta, kontrapuntu konplexua eskaintzen die bideo-joko konbentzionaletako balio matxistei eta garaileei.

«Eszenan dauden lau emakumeen ahots eta gorputzen bidez protagonistek beren aitopenen xuxurlatzen eta gauzaten dituzten heinean, igerilekua bera utopia artifizial moduko baten modura irudikatzen da berriro, miniatura neurriko paradisu gisa, estasirainoko mirariz eta fabrikako edertasunez betetako leku», azaldu dute konpainiakideek. XXI. mende hasierako deabru partikularren aurkako borroka: kapitalismo bihozgabea, maskulinitasun toxikoa, aspermen zibernetikoa eta neke emozionala.

Konpainiaren lanaren barruko fase berri batetik abiatutako proiektua da, elkarlaneko lehen hamarkada definitu duten eskala txikiko sorkuntzaren berezko lo-fi eta diy estrategietatik urrunduta, asmo puztuagoko praktika eta egitura handiagoak eta hedatzaileagoak erabiliz.

---

#### **SLEEPWALK COLLECTIVE**

lara Solanoren eta Sammy Metcalfen arteko lankidetzak artistikoa da, 2006az geroztik Espainian eta Erresuma Batuan esperientzia eszeniko intimoak sortzen dituen arte bizien nazioarteko konpainia saritua. Sleepwalk Collectivek antzoki eta espazio ez-konbentzionaletarako pieza originalak sortzen ditu, eta herri-kulturak eta beste pertsona batzuekin eta teknologiarekin dituzten harreman konplexutasunek

kideei eragiten dieten liluran dute sorburu horiek. Pieza hipnotiko sentsorialetan, gogoetarako testu eta irudi poetikoak soinu eta argi diseinu liluragarriarekin uztartzen dituzte.

////////////////////////////////////

**Otsailak 24, osteguna**

19:00

Auditorioa

15€ / 12€ Az txartelarekin eta tarifa murriztuarekin / 8€ taldeak. Tarifen inguruko informazioa [azkunazentroa.eus](http://azkunazentroa.eus) webgunea

////////////////////////////////////

 [sleepwalkcollective.com](http://sleepwalkcollective.com)

 [instagram.com/SleepwalkCollective](https://www.instagram.com/SleepwalkCollective)

ARTE BIZIAK / HITZALDI PERFORMATIBOA ETA LIBURUA  
URT. 13 (ostg.)

# Isabel de Naverán

Azkuna Zentroko ikertzaile Azkidea

## *Envoltura, historia y síncope* *(Bilgarria, historia eta sinkopea)*

Sarrera, Andrea Rodrigoren eskutik

HITZALDI PERFORMATIBOA BAT DATOR  
*ENVOLTURA, HISTORIA Y SÍNCOPE*  
LIBURUAREN ARGITALPENAREKIN. LIBURUAK  
IBILBIDE AFEKTIBO BAT EGITEN DU, ETA  
AZTERTZEN DU MUGIMENDUA GORPUTZ  
BATETIK BESTERA NOLA TRANSFERITZEN  
DEN, ETA FINKATZEKO AHALEGINEAN  
NOLA AGERTZEN DIREN IRUDIAK, TRAZUAK,  
MARRAZKIAK ETA ERRITMOAK



*Bilgarria, historia eta sinkopea* liburuak Antonia Mercé y Luqueren heriotzaren inguruabarrak ditu abiaburu. Antonia Mercé y Luque, La Argentina (1890-1936), herri-dantzako eta flamenkoko dantzaria izan zen Espainiako Bigarren Errepublikak kondekoratu zuen lehen artista. 1936ko uztailaren 18an konbultsio fisikoa izan zuen bat-batean, eta, liburuan, une hartako sentimendu kolektiboarekin jartzen da erlazioan, historiaren lerroan izandako pitzaduraren isla gisa. Pitzadura hori hainbat unetan errepikatu da, esaterako, Kazuo Ohno artista japoniarraren eskutik, dantzan ikusi eta berrogeita hamar urtera berreskuratu baitzuen La Argentinaren irudia.

Hitzaldi performatibo hau Bilbon aurkeztuko da lehen aldiz, Caniche argitaletxeak izen bereko liburua argitaratzearekin batera. Testuak ibilbide afektibo bat proposatzen du, eta aztertzen du mugimendua gorputz batetik bestera nola transferitzen den, eta finkatzeko ahaleginean nola agertzen diren irudiak, trazuak, marrazkiak eta erritmoak.

////////////////////  
**Urtarrilak 13, osteguna**  
 19:00  
 Lantegia 1  
 //////////////////////

Arg.: Matxalen de Pedro



**ISABEL DE NAVERÁN** (Getxo, 1976). Arteen doktorea da UPV/EHU, eta Artes ikerketa-taldeko kidea Madrilen. 2010 eta 2018 urte bitartean Bulegoa z/b proiektuaren parte izan zen eta gaur egun Reina Sofia Museoko zuzeneko arteen kuratoretzaz arduratzen da. Artea, koreografia garaikidea eta performancea lotzen dituen bidegurutzean ikertzen ari da, kuratoretzako, edizioko eta idazketako proiektuetan. Ikertzaile AZ-kide gisa, *La ola en la mente* proiektua garatuko du, idazketa somatikoan oinarritua, entzuteko eta kuratoretzako modu gisa.

Arg.: Bulegoazb



**ANDREA RODRIGO** (Madril, 1992) Filosofiako ikasketak egin zituen, eta dantzaren eta koreografia garaikidearen arloko ikertzailea eta kuradorea da. Isabel de Naveráni laguntza eman dio *Bilgarria, historia eta sinkopea* liburuaren idazketan eta ikerketan.

ARTE BIZIAK / MUSIKA ESPERIMENTALA /  
SOINU PERFORMANCEA **URT. 27** (ostg.)

## Ainara LeGardon + Marja Ahti

Ainara LeGardon eta Marja Ahti, Euskal Herriko eta nazioarteko soinu-artistarak puntakoenetako bik, osatzen dute urtarilean egingo den musika esperimentaleko performance hau. Ainara LeGardon musikaria eta artista autogestionatuak lan oparoa egiten du rockaren, inprobisazioaren eta musika esperimentalaren arloan, bakarka eta hainbat kolektibotan parte hartuz. Bestalde, Marja Ahti artista finlandiarrak Still Lives bakarkako bere hirugarren diskoa aurkeztuko du, soinuaren fisikaltateari buruzko ikerketa bat.

Beren proposamenak oso mundu desberdinetakoak dira, hain zuzen, musika akademikoaren eta herri-musikaren tradizioak; baina bi artisten lana harremanetan jartzen da materialekin oso sentibera den eta habitat intimista batean egiten den esperimenzio batean, beharrezkoa bada indarra erakusteko irekitzeko beldurrik izan gabe.

Arg. Rafa Rodrigo



**AINARA LEGARDON** (Bilbo, 1976) musikari eta artista autogestionatuak rockaren, inprobisazioaren eta musika esperimentalaren arloa lantzen du. Aldi berean, kultura-kudeaketaren eta jabetza intelektualaren arloan jarduten du, ikertzaile- eta dibulgatzaile-lana egiten. Gaur egun, dantza- eta antzerki-konpainiekin kolaboratzen du, pieza eszenikoen soinu-banda garatuz. Azken diskoa Xabier Erkizia musikari eta ekoizlearekin batera egindako konposizio- eta ekoizpen-prozesuaren emaitza da.

**MARJA AHTI** (1981) Finlandiako Turku hirian bizi eta lan egiten duen musikaria eta konposatzailea da. Bere musika akusmatikoaren eta dokumentalaren arteko eremu poetiko batean kokatzen da, abstrakzioaren eta guztiz familiarra denaren artean balantzaka. Hainbat testuingurutan aurkeztu du bere musika, Europan, Japonian eta Estatu Batuetan. Gaur egun, Ahti & Ahti bikoteko kidea da Niko-Matti Ahti bere bikotekidearekin batera, eta Hимера artista eta antolatzaileen kolektiboan ere sartuta dago.

////////////////////////////////////

**Urtarrilak 27, osteguna**

19:00

Auditorio

12€ / 10€ Az txartelarekin eta teta tarifa murriztuarekin / 7€ taldeak. Tarifen inguruko informazioa azkunazentroa.eus webgunea

////////////////////////////////////

 [facebook.com/ainaralegardon](https://facebook.com/ainaralegardon)

 [twitter.com/AinaraLeGardon](https://twitter.com/AinaraLeGardon)

 [marjahti.com](https://marjahti.com)

 [soundcloud.com/marjahti](https://soundcloud.com/marjahti)

 [instagram.com/marjahti/](https://instagram.com/marjahti/)

 [twitter.com/marjahti](https://twitter.com/marjahti)

ARTE BIZIAK / MUSIKA ESPERIMENTALA / KONTZERTUAK  
OTS. 16 (astz.)

## LIEBRE + *For Stella* (1961) de Cornelius Cardew Alejandro Mingot interpretatuta

Wade Matthews, Paloma Carrasco eta Javier Pedreira soinu-artisten LIEBRE taldeak eta Alejandro Mingot musikariak Cornelius Cardew ingeles konpositorearen *For Stella* (1961) pieza interpretatuz osatuko dute otsailean izaten den musika esperimentaleko kontzertuaren kartela.

Bi proposamenak musikako inprobisazioari lotuta daude maila desberdinetan. Hirukoan akustikoa (txeloa), elektrikoa (gitarra) eta elektronikoa (laptop-a) elkarrizketan ari dira eta dinamika funtsezkoa da, ia entzuten ez den zurrumurrutik zaratarik handieneko dentsitatera bidaiatzen baitute. "Inprobisazio librea" izenekoa egiten dute, musikarien bagajeak eta tresnek baizik ez baitituzte jartzen arauak.

////////////////////////////////////

Otsailak 16, asteazkena

19:00

Auditorioa

12€ / 10€ con Tarteja Az eta  
tarifa murriztuarekin /  
7€ taldeak. Tarifen  
inguruko informazioa  
azkunazentroa.eus webgunea

////////////////////////////////////



**LIEBRE** taldea honeko musikariek osatzen dute: Wade Matthews-ek, espainiar-iparramerikar musikaria eta soinu-artista, musika sortzen eta idazten aritzen dena; Paloma Carrasco López Madrileko musikaria eta irakasleak, eta musika-inprobisazio librea eta mugimenduen inprobisazioa jorratzen dituen; eta Javier Pedreirak, GENMAICHAKO kidea Wade Matthewsekin batera. Hamar urte daramatzate elkarrekin jotzen, beste artista batzuekin lankidetzan aritzearekin batera.

### ALEJANDRO MINGOT

Inprobisazioaren Teoria eta Praktikako irakaslea da Musikene Goi Mailako Musika Ikastegian. Era berean, bere lan artistikoaren zati handi bat musika libre inprobisatua eta free jazz-a interpretatzen eta zuzentzen eman du.

ARTE BIZIAK / MUSIKA ESPERIMENTALA  
MAR. 9 (astz.)

## Oscar Martín a.k.a Noish

### *Meta Music Machines*

Hotsetan. Musika esperimentaleko eta soinu-arteko programa

Oscar Martín a.k.a. **Noish** artista soinudun, ikertzaile independente eta programatzaileak *Meta Music Machines* proiektua aurkeztuko du, hainbat soinu-artxibotatik indexatutako musikatik ateratako informazioa berriz bateratuz, konpositore sasi-automata bat garatu eta eraiki nahi duen ikerketa-lana, soinu-sorkuntza berriak egingo dituen makina-eskultura.

Prozesuan dagoen lana da, eta artistak azaldu duenez, «denboran zehar hainbat formatu eta izen hartu ditu, erakusten den sorkuntza artistikoaren eta ikerketa-esparruen arabera».

////////////////////////////////////

**Meta Music Machines  
kontzertua/instalazioa**  
**Martxoak 9, asteazkena.**

19:00

Lantegia 1

10€ / 8€ Az txartelarekin eta  
tarifa murriztuarekin /  
6€ taldeak. Tarifen  
inguruko informazioa  
azkunazentroa.eus webgunea

**Computer music con pure data  
tailerra**

**Martxoak 10 eta 11 (osteguna  
eta ostirala)**

17:00h- 20:30

Informazio gehiago 56 orr.

////////////////////////////////////



#### **OSCAR MARTÍN A.K.A**

**NOISH** (Winterthur 1977):

Bartzelonan oinarritutako soinu-  
artista, ikertzaile independentea  
eta programatzailea. Haren  
praktika ezagutza-gailutzat  
har liteke, non artea, zientzia  
eta teknologia hibridatzen  
eta bateratzen diren, oso  
ortodoxoa ez den ikuspegi  
esperimental batetik.



## Jesus Pueyo

### *El Hombre Orquesta (Orkestra-gizona)*

Jesus Pueyo diziplinarteko artistak *El Hombre Orquesta* erakusketa-proiektua aurkeztuko du, bideo multikanaleko instalazio tragikomikoa. Sinkronizatutako hiru bideo- eta audio-kanalen bidez, horma baten gainean jarritako eta bertikalki orientatutako formatu handiko hiru pantailatan proiektatzen dira.

Artistak azaldu duenez, «italiar erara egindako antzerki gisa antolatutako display honi buruz, egilea hainbat pertsonaiatan banatzen da, eta horiek tragikomedia digital bat osatzen dute, horretan inork parte hartu nahi ez badu ere».

A PERTSONAIA: «Zein da istorioa?»

B PERTSONAIA: «Ez dago istoriorik»

C PERTSONAIA: «Edo istorioa da ez dagoela istoriorik»

A PERTSONAIA: «Argumenturik gabeko ipuina?»

C PERTSONAIA: «Horrelako zerbait»

Jesús Pueyok idatzi eta zuzendutako ikus-entzunezko lana egileak berak interpretatzen du. Raúl Lomasen laguntza izan du musika-konposizio eta -zuzendaritzan.

////////////////////////////////////

Otsailak 22 > Maiatzak 1

Mediateka Galeria

////////////////////////////////////

 [jesuspueyo.com](http://jesuspueyo.com)



**JESUS PUEYO** (Leioa, 1971) diziplinarteko artista da, eta 1990eko hamarkadaren hasieratik ari da bere lana garatzen, proposamenak formatu desberdinetan gauzatu: bideo-sorkuntza, zinema, antzerki-ikusizunak eta multimedia, performancea, instalazioa... Hona hemen bere obretako batzuk: *Diez personas que no deberían morir nunca* (instalazioa, zinema hedatua), *El video-diario de Jess* (sorkuntzako film luze dokumentala) eta *Serie Microcam* (kanal bakarreko bideoa).

ZINEMA ETA IKUS-  
ENTZUNEZKOAK / ZINEMATEKA  
URT. 12 > MAR. 24

# Iciar Bollaín. Errealita- tearekiko konpromisoa

Zinematekak 2022ko programazioa irekiko du Iciar Bollaín eskaintako ziklo batekin, arrakala ireki duten eta espainiar zinematik nazioz gairikoa izatera hartu duen emakumezko zuzendarien belaunaldi baten paradigma gisa.

Iciar Bollaínez hitz egitea publikoarekin bat egiten duten istorioekiko bokazioaz hitz egitea da; istorio horien bidez zuzendaria modu enpatikoan gerturatzeko baita pertsonen bizitzetara. Artifiziorik gabe egiten du eta irismen globaleko gai eta arazoengatik inguruan argi apur bat emateko asmoz: indarkeria, matxismoa edo ekologismoa, esaterako. Zinemako lanbideaz duen jakinmina eta lilura nabarmen diren zuzendari honengan. Iciar Bollaín gizartearekin konpromisoa duen emakumea da, zinema kontzientziatorako eta gizarte aldatzeko tresna dela uste duena. Sororitatea eta ahalduzko feminismoa beti lotu izan dira bere lanarekin, gaur egun bezain ospetsua ez zenean ere bai.

Filmografia zabala da horren adierazgarri, ziklo honetan ikusgai duguna, hasi bere lehenengo lanarekin, *Hola, ¿estás sola?* (1995), eta bere azken film luzeraino, *Maixabel* (2021).



Urtarrilak 12 > Martxoak 24

Asteazkenak eta ostegunak

Golem Alhóndiga Zinemak

5€ / 4€ Az txartelarekin

Sarrerak: Golem Alhóndiga Zinemako txarteldegian eta golem.es

## PROGRAMA

**HOLA, ¿ESTÁS SOLA?  
(1995)**

Urtarrilak 12 eta 13

**FLORES DE OTRO  
MUNDO (1999)**

Urtarrilak 19 eta 20

**TE DOY MIS OJOS  
(2003)**

Urtarrilak 26 eta 27

**MATAHARIS (2007)**

Otsailak 2 eta 3

**TAMBIÉN LA LLUVIA  
(2010)**

Otsailak 9 eta 10

**KATMANDÚ, UN  
ESPEJO EN EL CIELO  
(2011)**

Otsailak 16 eta 17

**EN TIERRA EXTRAÑA  
(2014)**

Otsailak 23 eta 24

**EL OLIVO (2016)**

Martxoak 2 eta 3

**YULI (2018)**

Martxoak 9 eta 10

**LA BODA DE ROSA  
(2020)**

Martxoak 16 eta 17

**MAIXABEL (2021)**

Martxoak 23 eta 24

### Hola, ¿estás sola? (1995)

Urtarrilak 12, asteazkena / 17:00  
Urtarrilak 13, osteguna / 19:30



92' / Z: Icíar Bollaín / G: Icíar Bollaín / A: Silke, Candela Peña, Arcadi Levin, Álex Angulo.

### Flores de otro mundo (1999)

Urtarrilak 19, asteazkena / 17:00  
Urtarrilak 20, osteguna / 19:30



108' / Z: Icíar Bollaín / G: Icíar Bollaín, Julio Llamazares / A: José Sancho, Lissete Mejía, Luis Tosar, Marilyn Torres.

### Te doy mis ojos (2003)

Urtarrilak 26, asteazkena / 17:00  
Urtarrilak 27, osteguna / 19:30



109' / Z: Icíar Bollaín / G: Icíar Bollaín, Alicia Luna / A: Laia Marull, Luis Tosar, Candela Peña, Rosa María Sardà.

### Mataharis (2007)

Otsailak 2, asteazkena / 17:00  
Otsailak 3, osteguna / 19:30



100' / Z: Icíar Bollaín / G: Icíar Bollaín, Tatiana Rodríguez / A: Najwa Nimri, Nuria González, María Vázquez.

### También la lluvia (2010)

Otsailak 9, asteazkena / 17:00  
Otsailak 10, osteguna / 19:30



103' / Z: Icíar Bollaín / G: Paul Laverty / A: Luis Tosar, Gael García Bernal, Karra Elejalde, Juan Carlos Aduviri.

### Katmandú, un espejo en el cielo (2011)

Otsailak 16, asteazkena / 17:00  
Otsailak 17, osteguna / 19:30



104' / Z: Icíar Bollaín / G: Paul Laverty / A: Verónica Echegui, Sumyata Battarai, Norbu Tsering Gurung.

### En tierra extraña (2014)

Otsailak 23, asteazkena / 17:00  
Otsailak 24, osteguna / 19:30



72' / Z: Icíar Bollaín / G: Icíar Bollaín.

### El olivo (2016)

Martxoak 2, asteazkena / 17:00  
Martxoak 3, osteguna / 19:30



100' / Z: Icíar Bollaín / G: Paul Laverty / A: Anna Castillo, Javier Gutiérrez, Pep Ambrós.

### Yuli (2018)

Martxoak 9, asteazkena / 17:00  
Martxoak 10, osteguna / 19:30



115' / Z: Icíar Bollaín / G: Paul Laverty / A: Carlos Acosta, Santiago Alfonso, Keyvin Martínez.

### La boda de rosa (2020)

Martxoak 16, asteazkena / 17:00  
Martxoak 17, osteguna / 19:30



100' / Z: Icíar Bollaín / G: Icíar Bollaín, Alicia Luna / A: Candela Peña, Sergi López, Nathalie Poza.

### Maixabel (2021)

Martxoak 23, asteazkena / 17:00  
Martxoak 24, osteguna / 19:30



115' / Z: Icíar Bollaín / G: Icíar Bollaín, Isa Campo / A: Blanca Portillo, Luis Tosar, Urko Olazabal, María Cerezuela

### INFORMAZIOA

Film guztiak jatorrizko bertsioan (JB) proiektatuko dira. Zinematekako programazioan azken orduko aldaketak egon daitezke. + info: [azkunazentroa.eus](http://azkunazentroa.eus)

### LABURDURAK

Z: Zuzendaria | G: Gidoia | A: Aktoreak

Zikloko eskuliburua Az Infon hartu, [azkunazentroa.eus](http://azkunazentroa.eus)-en deskarga ezazu edo eskatu mezu elektronikoko bat bidalita [info@azkunazentroa.eus](mailto:info@azkunazentroa.eus) helbidera, eta harremanetan jarriko gara zurekin

# AURKEZPENA ETA TAILERRA

## OTS. 8 ETA 9 (astr. eta astz.)

# Borja Crespo & Raquel Meyers

## Aukeratu zeure normaltasuna

Raquel Meyersek eta Borja Crespok Babestu. Sorkuntzari laguntzeko programaren barruan garatu duten *Aukeratu zeure normaltasuna* proiektua aurkeztuko dute. Bertan, hausnarketa egingo dute egonaldian landutako prozesuari buruz, FANZINEa sortzeko deialdi irekitik abiatuta. Proposamen hau hausnarketarako espazio analogiko eta digitala da, eta irudimen kolektiboaren distopietara hurbilduko diren ikuspegi berriak azaltzeko premia du sorburu. Armiarma-sare bat planteatzen da, zeinaren jatorria paperezko fanzine batzuk diren, formatu desberdinetan egindako hainbat elkarrizketaz osatutako online errizoma batekin konektatuta.

### Tailerra: FANZINEAK, eskuz edo makinaz?

Aurkezpena egin aurretik, Raquel Meyersek eta Borja Crespok fanzineei buruzko tailer bat emango dute otsailaren 8an eta 9an. Nola egiten dira, eskuz edo makinaz? Fanzinea formatu librekoa da, mugarik gabea, edonoren eskura dagoena.



**BORJA CRESPO.** Zuzendaria, zinema-ekoizlea, idazlea, ilustratzailea, komikilaria eta irakaslea da. Fanzinetan ekin zion bere bizitzari eta 90eko hamarkadaren erdialdetik, El Correo eta Grupo Vocentoko beste goiburu batzuetan kolaboratzen du. Bideoklipak, spot-ak, film laburrak eta telebista-saioak zuzendu ditu.

### RAQUEL MEYERS.

Diziplina anitzeko artista, Mekanografia hedatu gisa hartzen du bere praktika, eta haren esanahia honela defini liteke: «teklatu batekiko eskuzko trebetasuna», testu- karaktereak eta teklatu-pultsazioak pantailatik harantzago gauzatzen dituenak, eta zalantzan jartzen duena teknologiarekin dugun lotura parasitarioa.

//////  
**Aurkezpena: Aukeratu zeure normaltasuna.**

**Asteazkena, otsailak 9**

18:30

Mediateka. TK202

//////  
**Tailerra: FANZINEAK, eskuz edo makinaz?**

**Otsailak 8 eta 9 Astearte eta asteazkena**

11:00h - 13:00

Mediateka. TK202

Ikastetxeekin itundua



[eligetupropianormalidad.com](http://eligetupropianormalidad.com)

# LA NUIT DES IDÉES IDEIEN GAUA

Urtarriak 27, osteguna

INSTITUT  
FRANÇAIS  
Bilbao



---

## ZINEGOAK

Bilboko Gaylesbitrans Nazioarteko  
Zinema eta Arte Eszenikoen Jaialdia

Martxoak 2022



---

## MUSIKA - MÚSICA

Martxoak 4, 5 eta 6

Ostirala, larunbata eta igandea



---

## LORALDIA

**LORALDIA**  
EUSKAL KULTURA GAUR

**JOSEBA SARRIONANDIA** • Martxoak 7

**MUG MUG DANTZA** • Martxoak 18



# SORKUNTZA ARTISTIKOKO PROIEKTUAK

# Higinia Garayk, Marine des Mazeryk eta Jimmy Beaulieuk Komikiaren Nazioarteko Egonaldiari ekingo diote

Azkuna Zentroak, la Cité Internationale de la Bande Dessinée et de L'image-k (Angulema) eta la Maison de la Littérature-k (Quebec) bultzatutako komikien arloko nazioarteko egonaldia urtarrilean jarriko da abian, hiru zentroek beren egoitzetan proiektua ondoz ondo garatuko duten pertsonak aukeratu ondoren.

Azkuna Zentroak [Higinia Garay / Higi Vandis](#) artista aukeratu du egonaldi honetarako, aurkeztutako hautagaien artean; epaimahaiak haien kalitate grafikoa eta emakumeen presentzia handia -hori da- eta komikiaren egungo joera- nabarmendu ditu bereziki.

Bilboko ilustratzaileak Anguleman aukeraturako [Marine des Mazery](#) eta Quebecoko Literaturaren Etxeak aukeraturako [Jimmy Beaulieu](#) artistekin partekatuko du esperientzia. Egonaldia Egileen Etxean jarriko da abian, Angulemako Komikiaren Nazioarteko Jaialdiarekin bat eginez. Handik hilabetera, Komiktekan arituko dira, eta, hor, aukera izango dute Azkuna Zentroak antolatzen duen Gutun Zuria Bilbaon, Letren Jaialdiaren 2022ko edizioan parte

hartzeko. Azken egonaldia Kanadan izango da, Québec BD Jaialdiaren barruan.

Hilabete horietan, deialdi honetarako aurkeztutako proiektua garatuko dute, ibaia ardatz duena. Higi Vandisen proiektuak [Ibai batek zeharkatzen gaitu](#) du izena, eta jariatzen jakiteak dakarren gaitasun «harrigarria» du abiaburu. Artistak adierazi duenez, lan honen helburua da «entzundako istorio bat kontatzea, elkarrizketetan oinarritutako landa-lan bat egitea, El Salvadorren egindakoaren antzekoa. Bertan bizi diren pertsonen bizitzako istorioak lehen pertsonan bildu nahi ditu, hurbilduz eta gizaki gisa elkartzuz». Proiektua «mugimenduan dago, ura bezala», eta egileak egonaldiaren beraren esperientziaren bidez sortuko du.





**HIGINIA GARAY / HIGI VANDIS** (Bilbo, 1978) Arte Ederretan lizentziaduna da, Argitalpen Diseinuan graduondokoa egina du Madrilgo Diseinuko Europako Institutuan, eta ilustratzaile eta diseinatzaile gisa lan egiten du, 2013tik bere estudioaren ardurapean. Jarduera horiek, gainera, irakaskuntzarekin uztartzen ditu. Bere ibilbideari eta sentsibilitateari esker, genero-desberdintasunarekin eta giza eskubideen urraketarekin lotura duten gaietan espezializatu da. Sentsibilitate horren ondorioz, jarrera hartzen du beste errealitate batzuk eta, batez ere, emakumeen errealitateak modu grafikoa ikusarazteko. Bestek beste, Azkuna Zentroaren Fatxada. Diseinua, ilustrazioa eta komikia proiektuan parte hartu du.


Azkuna Zentroak  
hautatutako artista

AZKUNA ZENTROA  
ALHÖNDIGA BILBAO

**MARINE DES MAZERY** komikigilea eta ilustratzailea da. Phasmes eta antzeko beste fanzine batzuetan hasi ondoren, 2021eko uztailan irakurketa bikoitzeko *Le Roi Jehan* komikia argitaratu zuen (Lapin arg.), eleberrigilea den *Bénédicté des Mazery* bere amarekin batera idatzia. Hilabete batzuk geroago, 2021eko urrian, *Lily Cane arrête de fumer* komikia iritsi zen liburu-dendetara (First arg.), eta hainbat ilustrazio marraztu zituen horretan. Bere azken proiektua Comic Art Europe-rako aukeratu dute, eta Lyon BD Jaialdian eta LICAFen (Erresuma Batua) erakutsiko dute 2022an.

Cité Internationale de la Bande  
Dessinée et de L'image (Angoulême)  
espazioak hautatutako artista

la **CITÉ** internationale  
de la bande dessinée  
et de l'image



**JIMMY BEAULIEU** Orleans uhartean jaio zen 1974an. Montrealen bizi da 1998tik, eta urte horretan hasi zen komikiak sortzen. Horrez gain, hamar urtez musikari, hamabost urtez liburu-saltzaile, hamar urtez editore eta hogeitaz urte irakasle izan da. 2000ko irailean lehen liburua argitaratu zuen, *Quelques pelures*, eta aldi berean *Mécanique générale* argitaletxea sortu zuen. 2002an *Colosse* fanzineen bilduma atera zuen. Bere liburuen artean honako hauek nabarmentzen dira: *À la faveur de la nuit* (Les impressions nouvelles, 2010), *Comédie sentimentale pornographique* (Shampoo, 2011) eta *Rôles de composition* (Mécanique générale eta Vraoum!, 2016).

Maison de la Littérature (Quebec)  
espazioak hautatutako artista

  
Maison de  
la littérature

# Aimar Arriola

## *Un deseo de forma (Forma-desira bat)*

Ikerketa-proiektua eta programazio publikoa

Joan den azaroaren 18an egin zen *Forma-desira bat* proiektuaren laugarren jarduera publikoa, [Aimar Arriola](#) komisarioak Azkuna Zentroko ikertzaile AZkide gisa garatzen duen proiektuarena. Izan ere, 2020ko udazkenean hasitako Forma-desira bat proiektua da zentroko programazioaren barruan arte eta queer ikuspegiaren arteko harremana areagotuko zuen lan-ildo propioa garatzeko jaso zuen gonbidapenari Arriolak emandako

erantzuna. Gaingiroki, proiektuaren arabera, queer-a formen potentzial aldakorrari dagokion ezaugarri plastiko bat da, eta, horregatik, bizitzari dagokion gaia da. Proiektuak aurrera egiten du, berezko ikerketa-metodologia baten arabera, bertako eta nazioarteko artistekiko lankidetzeta prozedura nagusizat hartuta. Aldez aurretik bilatzen dena ezagutu beharrean, zientzia handian bezala, *Forma-desira bat* ikerketaren helburuak elkarlanean azaleratzen dira.

Azaroko hitzorduan [Sands Murray-Wassink](#) izan zuten gonbidatu, Amsterdameko eszena artistikoan queer kultuko figura, eta bere praktika aurkeztu zuen, arte interseksional feministaren eta queer-aren ondarearekin zordun dena. Murray-Wassink-ek pintore, gorputzaren artista eta lurrinen bildumagiletzat hartzen du bere burua. *Forma-desira bat* proiekturako egin zuen saioak hitzaldi eta performancearen arteko forma hibridoa hartu zuen, eta zuzeneko pintura-ekintza luze batekin amaitu zen. Honela deskribatzen du Arriolak han gertatutakoa: "Lurrin-hodei batek bildu zituen espazioa eta gorputzak Sandsen performancean. Ekintzaren une jakin batean lurrina erabiltzeak, eta artistaren eta haren deia entzunda han bildu ginenen artean sortu zen energiak ere, afektibitatezko

Sands Murray-Wassink *Forma-desira bat* proiekturako egindako saioko une bat.



eta zentzuzko bilgarri bat sortu zuen, oraindik dardara egiten duena. Gorputzak eta egoerak modu sentikorrean bildu eta inguratzeko lurrian duen gaitasuna, bilgarri hori iraunkorra edo ikusgarriagia izan gabe, horixe eraman nahi nuke hurrengo hiru hilabeteetan egingo dudan lanera, lan horretan saiatuko bainaiz orain arte nire proiektuan gertatu denaren zati bat idatziz jasotzen. Hortik aurrera, prozesua beste gonbidatu batzuegana eta une publikoetara zabalduko da."

Era berean, Azkuna Zentroko artxiboari egindako ekarpen garrantzitsu gisa, eta ikerketa-prozesua dokumentatzeko modu gisa, *Forma-desira bat* proiektuak *Orriak* argitalpen-sorta proposatzen du, zentroaren webgunean aldizka modu digitalean argitaratuta. Parte hartzen duten artistei enkargatutako testu libreak dira, beren ekintza publikoak zabaltzen eta osatzen dituztenak.

2020-2021ean, Dogartzi Magunagoicoechea, Manu Arregui, Camila Téllez (Eszter Katalinekin elkarlanean), Pablo Marte eta Sands Murray-Wassink artistek hartu dute parte *Forma-desira bat* proiektuan. Proiektuaren programazio publikoari berri ekingo zaio 2022ko udaberrian.



Sands Murray-Wassink *Forma-desira bat* proiekturako egindako saiko une bat.

## BABESTU. SORKUNTZA GARAIKIDEARI LAGUNTZEKO PROGRAMA

Sorkuntza eta hedapen artistikoa sustatzeko urteko deialdia, hainbat diziplinarekin lotutako proiektuen bidez, Azkuna Zentroan garatu eta aurkezteko.



### Victoria Ascaso

*So Sad Today*

*So Sad Today* gaur egungo kultura digitalen inguruko ikerketa-proiektu transdiziplinarra da, eta mundu fisikoan garatutako identitateen eta pertsona bakoitzaren mundu digitaletan garatutakoan artean sortzen den frikzioa du ardatz.



### M Benito Píriz

*El panda más dramático del mundo*


*El panda más dramático del mundo* mugikorraren ohar-blokean idatzitako liburu bat da. Literaturaren egiturak hautsi, idazteko modu fresko eta erakargarri bat bultzatzeko, esaterako, mugikorraren hiztegi prediktiboa edo hizkuntza inklusiboa erabiltzea.



### Blanca Ortiga

*Shifter!*

Eskulturaren eta performatibitatearen arteko harreman-puntuan kokatzen den *Shifter!* ikerketa- eta sorkuntza-proiektuak desbideratzean jartzen du arreta, hor egoera eskultorikoak eta ekintza ingurune performatiboetan artikulatzen baitira.



### Ander Perez Puelles *Ágil y un placaje*

*Ágil y un placaje* proiektuak eta bera egiteko prozesuaren zati handi batek grabazioaren ezaugarriak eta mugimendua ikertzen ditu, jolasetik bertatik abiatuz, errealitatearen aldi baterako balio gabetzaile gisa hartuta. Prozesuaren fase honetan, grabazioetarako tresnak eraikitzean jarriko da arreta.



### Macarena Recuerda Shepherd

*Cosa. Intervenir un cuerpo*

*(Gauza. Gorputz batean esku hartzea)*

*Cosa* esku hartutako gorputzari buruzko ikerketa bat da. Laborategi koreografiko bat, material eta objektu desberdinekin interpretearen gorputzari nola eragin dakiokkeen ikertu nahi duena, irakurketa ugari sortuz.



### **Tunipanea** *El íntimo ritmo del azar: diálogos entre máquinas imperfectas*

*El íntimo ritmo del azar* ikerketa artistiko pertsonaleko prozesua 2020ko maiatzean hasi zen, ziurgabetasun eta ezegonkortasun sozial handiko une batean. Soinu-instalazioa bezalako ingurune batean ausazkoa denaren kontzeptuak dituen aukerak esploratzeko motibazioa da abiaburua.

---

## ARTISTA AZ-KIDEAK

Sorkuntzari laguntzeko programa, lengoaia garaikideei buruzko inspirazio-iturri diren lanak egiten dituzten artistei laguntzen diena.



### **Elena Aitzkoa**

**Elena Aitzkoa** (Apodaka 1984), 2022ko Az artista kide berria, besteak beste, eskulturan, marrazketan, poesian eta performancean eta filmak egiten aritzen da. Haren sorkuntzari lanak ekosistema heterogeneo bat dira, eta ingurune gutxi-asko hurbileko elementu fisikoak eta emozionalak eta bizi-esperientziak dituzte oinarrian. Fokua eta sormen-energia materiaren konfigurazio poetikoan jartzen du, eta edertasunean, izakien arteko lotura- elementu gisa hartuta.



### **Laida Lertxundi**

#### *8 Topaketa*

**Laida Lertxundi** Artista Az-Kidea da 2021etik eta 8 Topaketa lana garatzen du. Proiektuak zortzi tailer ditu, eta esperimendu pedagogiko bat sortu nahi du instituzio akademikoen mugetatik kanpo.



### **Miguel García**

**Miguel A. García (aka Xedh)**, 2022az geroztik Az artista kide berria da, musika esperimentalaren eta soinu-artearen arloan lan egiten duen artista. Bai bakarka bai taldeka, Europan, Amerikan eta Asian jardun du. Hainbat artistekin aritu da bai estudioan eta bai zuzenean, ehun diskotan baino gehiagotan agertuz.



### **Oscar Gómez Mata**

#### *Catálogo de derivas*

**Oscar Gómez Matak**, Artista Az-Kideak, Deriben Katalogoa proiektuarekin jarraitzen du, eguneroko hiri-paisaiak behatu eta arakatzeko deambulazioen proposamena. Deriba hauek egiteko, eskatu AzInfon.



## Ion Munduate

**Ion Munduate** (Donostia, 1969) Az artista kide berria da 2022tik. Blanca Calvoren batera, 1994an lankidetzatza artistikoa hasi zuen, eta hainbat lan sortu zituzten. Aldi berean, Mugatxoan sortu zuten 1998an (Gure Artea 2015 saria), ikerkuntzan eta sorkuntzan oinarritutako prestakuntza-proiektua. Bere performance eta bideoak Europako hainbat espaziotan aurkeztu dira.



## Sra. Polaroiska (Alaitz Arenzana eta María Ibarretxe) *Consejo de sabias*

**Sra. Polaroiska** Kolektiboa (**Alaitz Arenzana** eta **María Ibarretxe**), Artista Az-Kideak, adineko emakumeen erreferenteen sorrerari eta ahalduzeari buruzko bere sorkuntza-prozesua jarraitzen dute.

 [cargocollective.com/srapolaroiska](https://cargocollective.com/srapolaroiska) -  [sra polaroiska](#)

## IKERTZAILE AZ-KIDEAK

Egungo sorkuntzaren inguruko analisia eta ekoizpena bultzatu eta sustatzeko programa, komunitate artistikoen, publikoen eta beste profesional batzuen arteko trukea errazten duena.

Arg.: Helena Goñi 2021



## Aimar Arriola *Un deseo de forma*

**Aimar Arriola** Ikertzaile Az-Kidea da. Forma desira proiektuan jarduten du, artearen eta queer perspektibaren arteko harremanaren inguruko ikerketan, Zentroaren programazioaren barruan sartuta, eta kultura bisualaren esparruko gorputz- eta artxibo-gaien inguruan egin duen lanik berriarekin lotuko du, arteari eta plastikari buruzko gai espezifikokoekin.

 [arriolaaimar](#) -  [aimar.arriola](#)

Arg.: Matxalen de Pedro



## Isabel de Naverán

*La ola en la mente*

**Isabel de Naverán** ikertzaile Az-Kidea da 2021etik. Arreta berezia jarriz gorputzaren pertzepzioan, zentzumeneren lokailua den aldetik, proiektuak idazketa bat entseatu nahi du, aldi berean entzuteko gailu eta ikerketa-metodologia dena.

## KOLEKTIBO EGOILARRA

Laguntzeko programa, hainbat forma eta begiradatatik beren lanean lengoia artistikoetatik eta kultura garaikidetik hurbil dauden kolektiboei zuzendua.

### Kinu

*Tractora Koop. E.*

Kinu Tractora Koop. E. artisten kooperatibako [Usue Arrieta](#) eta [Ainara Elgoibarrek](#) bultzatutako eta artisten ikus-entzunezko produkzioak programatzeko, ikusteko eta eztabaidatzeko plataforma bat da. Hiru hilean behingo topagune bat, artista bat bere lana erakustera gonbidatzen duena, harekin batera lan-saio bat egiteko, praktika-mota horri buruz taldean gogoeta egiteko.

Proiektuak hiru parte ditu: Artista gonbidatuaren lanaren proiektzio eta aurkezpen publikoa (Kinu); artista gonbidatuak zuzendutako saio bat lantalde egonkor batekin (Lantaldea); eta azkenik, proiektua osatzeko, lantaldea eratzen duen pertsona batek testu bat egiten du Lantalde bakoitzaren esperientzia jasotzeko (Distirak).

Maddi Barber - *Gorria* (2020)



### KINU #2

Kinu proiektua Kinu#1 saio pilotuarekin hasi zen, [Elena Aitzkoa](#) artistaren eskutik; irailean, AZko kolektibo egoiliarra zela, Kinu#2 saioa izan zen, [Maddi Barber](#) gonbidatuarekin. Ibilbide profesional labur baina sendoarekin, bere azken aurkeztu zuen, *Gorria*. Lakaben 16 mm-an filmatua, eta bi lanbide paraleloan ikasteko ariketa da: zeluloideko filmaketa eta artzaintza.

**Lantaldea #2:** Lantaldea#1 eta Lantaldea#2 lan-saioek filmatzea izan zuten ardatz, eta ikusentzunezko pieza bat izan zen emaitza. 16 mm-tan filmatutako pieza bat, kameran muntatua, errebelatua eta saioa egindako egunean bertan proiektatua.

**Distirak #2:** Ander Pérez-en testua.

### KINU#3

Kinu#3 saioa 2020ko azaroan izan zen, [Sabine Groenewegen](#) zinemagileari eskainitakoa *Odyssey* (2018) lanaren estatuko estreinaldiarekin. Zinemagilearen azken lana da bera, ametsezko saiakera bat, artxiboko irudien materialtasunean sakontzen duena, irudi kolonial naturalizatuen dekonstrukzioa egiteko.

**Lantaldea #3:** Saioak beste batzuen materialekin film bat egiteko ekintza izan zuen ardatz, eta Sabine Groenewegenek emandako master classetik abiatuta.

**Distirak #3:** Pablo Marte-ren testua.



### KINU#4

Kinu#4 saio bikoitza apirilean izan zen Venezuelen jaiotako espainiar zinemagile [Andrés Duque](#) gonbidatuarekin *Ensayo final para utopía* eta *Carelia* lanak proiektatuz.

Bere lana espainiar ez-fikzioaren periferian kokatzen da, eta saiakera-kutsu sendoa du.

**Lantaldea #4:** Saioan Augusto Boalek inprobisazioa filmatzeko garatutako teknikak jorratu zituen. Boalek 70eko hamarkadatik garatutako metodologiak -Zapalduaren Antzerkia deitu zuenak- ulertzen du errealitatea eraldatzen duena eraldatzeko ekintza bihurtzen dela.


**Distirak#4:** Leire Aranberri-ren testua



#### KINU#5

Kinu#5 **Imogen Stidworthy** artistari eskaini zioten 2021ko irailean, bere soinu-lanen, filmen eta multimedia instalazioen aukeraketa bat erakutsiz. Haren lanek hizkuntzaren hauskortasunean sakontzen dute, hitzak ezegonkorrak diren egoerak aukeratuz, hitzak higatuz doazen edo huts egiten duten egoerak hain zuzen ere.

**Lantaldea #5:** Saioan, Imogenek *Klinik und Rehabilitationszentrum Lippoldsberg* proiektuan barne garatzen dituen zenbait



ger 10

Tutach

ariketetan sakonduko zen. Klinika hori bihotzeko gaitzen errehabilitazioan espezializatuta dago, nazien bonba-fabrika zahar baten orubean.

**Distirak#5:** Ohiane Iraguen-ren testua

#### KINU #6

2021ko azken saioa **Ute Aurand** zinamgile alemaniarrari zuzenduta izan zen. Artista hau giltzarri bat da Europako 16 mm-ko zinema esperimentalean. Zinemagile, programatzaile eta ekoizle gisa egin duen lana ezinbestekoa da Berlingo zinema alternatiboaren kultura ulertzeko, jardunean aritu baita hor 80ko hamarkadatik orain arte.

**Lantaldea #6:** Ute Aurand-en lanaren inguruan garatutako saioa


**Distirak#6:** Olatz Otolara-ren testua



Kinu Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza politika-sailarekin elkarlanean burutzen da.



**AZ IRRATIA, AZKUNA  
ZENTROAREN KULTURA-  
PROGRAMAZIOA  
ESPERIMENTATZEKO  
BESTE MODU BAT**



Iker Gómez. Un día cisne



HEZKUNTZA PROGRAMA



## HEZKUNTZA PROGRAMA



### PUBLIKO FAMILIARRA

- 54 Adolfo Serra. Ilustrazio, sormen eta istorioen sorkuntzako tailerra
- 54 Ibilbide ludikoak

### PUBLIKO HELDUA

- 55 Komikiko ezinbesteko figuren inguruko elkarriketak eta podcasta
- 56 Oscar Martín a.k.a Noish. Tailerra: *Computer Music con Pure Data*

### IKASTETXEEKIN ITUNDUA

- 54 Eskola-ikasleentzako hezkuntza-programa
- 55 Zinemaz Blai. Eskolatik Zinemara
- 56 Musika esperimental eta soinu-artearen hastapenetako tailerrak
- 57 Mitusu, haur eta gazteentzako antzerki-aretoa



## Adolfo Serra

### Ilustrazio, sormen eta istorioen sorkuntzako tailerrak

Adolfo Serra marrazkilaria haur eta gazteen ilustrazioan espezializatuta dago, *Roma Akademia* erakusketan parte hartzen du, eta bi ilustrazio-tailer eskainiko ditu publiko familiarrari zuzenduta. Bi saioak independenteak eta osagarriak izango dira; eta batean edo bietan parte hartu ahal izango da.

1. Tailerra: *Begiratzea, marraztea eta asmatzea*
2. Tailerra: *Istoriok sortzen, kontakizunak ilustratzen*

PUBLIKO  
FAMILIARRA

1. Tailerra: 6€ / 4€ Az.  
txartelarekin eta tarifa  
murriztuarekin  
Pack: bi tailer 10€ /  
8€ Az txartelarekin eta tarifa  
murriztuarekin. Tarifen  
inguruko informazioa  
azkunazentroa.eus  
webgunean

## Ibilbide ludikoak

Jarduera hau batez ere haurrei eta familiei zuzenduta dago, eta 2018. eta 2020. urteen artean Erromako Espainiako Akademian egoiliar izan diren 45 artistaren erakusketa eta lana bisitatzea du xede. Material didaktiko espezifikoa bidez, ibilbide ludiko bat proposatzen da era askotako lengoaietara hurbiltzeko, hala nola pinturara, argazkigintzara, collagera, bideora, modara, diseinura eta ilustraziora. Aretoan egiteko moduko jolasak ere baditu, obra batzuetan inspiratuta.

PUBLIKO  
FAMILIARRA

Materiala eskuragarri dago  
Erakusketa Aretoan, Az  
Infon eta azkunazentroa.eus  
webean.

## Eskola-ikasleentzako hezkuntza-programa

Jarduera honek espazio bat eratu nahi du erakusketa bakoitzaren edukietan sakontzeko eta esanahi berriak batera aztertzeko. Formatuan, zati teorikoa eta praktikoa uztartzen dira, bisitaldiaren esperientzia zabaltzeko eta era askotako ikaskuntzak lortu ahal izateko, gorputza, jolasa edo elkarrekin egindako gogoeta erabiliz.

IKASTETXEEKIN  
ITUNDUA

Osailaren 6ra arte

Informazio gehiago izateko  
eta izena emateko:  
944 014 014 /  
info@azkunazentroa.eus

## Zinemaz Blai. Eskolatik Zinemara

Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaok **Zinemaz blai. Eskolatik zinemara** abiarazi du, Golem zinemen lankidetzarekin. Hezkuntza-arloko ikusleentzako bitartekaritza-programa bat da, jatorrizko bertsioan zinema ikusteko interesa pizteko, bizitzeko, hunkitzeko eta sustatzeko asmoz pentsatua. Halaber, ekimen hau sortzean eragile izan da ikus-entzunezko sorkuntza garaikidea hezkuntzarako eta pentsamendu kritikoa sustatzeko tresna dela sinestea.

Zinemaz blai. Eskolatik zinemara gonbidapena da film bat zinema-areto batean ikusteko esperientzia kolektiboa partekatzeko, bai eta, filma ikusi aurretik eta ondoren, identitateaz, generoaz, kontzientzia sozialaz eta ekologikoaz edo bizikidetzaz ikasgelan gogoeta egiteko ere.

IKASTETXEEKIN  
ITUNDUA

Urtarrilaren erdialdea –  
2022ko apirilaren hasiera

Goizez

4€

DBHko, Batxilergoko eta  
Helduen Hezkuntzako  
ikasleei zuzendua.

## Komikiko ezinbesteko figuren inguruko elkarrizketak eta podcasta

**Komikitekak** aurrera jarraitzen du komikiko figura nabarmenen eta beren lanen inguruko programazioarekin, Mediatekan topaketak eginez eta Azkuna Zentroaren webgunean entzungai egongo diren podcastekin. Hiruhileko honetako protagonistak Alejandro Jodorowsky eta Moebius, Art Spiegelman, Kazuo Koike, Goseki Kojima eta Miguel Gallardo dira.

**Alejandro Jodorowsky / Moebius: *El Incal***  
Asteazkena, urtarrilak 19 · 18:30 - 19:30

**Art Spiegelman: *Maus: relato de un superviviente***  
Asteazkena, otsailak 9 · 18:30 - 19:30

**Kazuo Koike; Goseki Kojima: *Lobo solitario y su cachorro (1. lib.)***

Asteazkena, martxoak 2 · 18:30 - 19:30

**Miguel Gallardo: *Maria y yo***

Asteazkena, martxoak 23 · 18:30 - 19:30

PUBLIKO  
HELDUA

**Topaketak**

Mediateka. TK101

Sarrera dohainik aldeztu aurretik Az Infon edo [azkunazentroa.eus](http://azkunazentroa.eus) helbidean izena emanda

**Podcasta**

[azkunazentroa.eus/eu/jarduera/komikiari-buruzko-ezinbesteko-elkarrizketak/](http://azkunazentroa.eus/eu/jarduera/komikiari-buruzko-ezinbesteko-elkarrizketak/)

## HEZKUNTZA PROGRAMA / MUSIKA ESPERIMENTALA

### Oscar Martín a.k.a Noish

Tailerra: *Computer Music con Pure Data*

Hotsetan. Azkuna Zentroaren musika esperimentaleko eta soinu-arteoko programa

Oscar Martín a.k.a. [Noish](#) soinu-artista, ikertzaile independente eta programatzaileak *Computer Music con Pure Data* izeneko tailerra emango du: PURE DATA programazio-lengoiaren sarrera (deskarga librekoa hemen: <http://puredata.info/>), soinu-sorkuntzan eta Computer Music-i lotutako konposizio-estrategietan arduztuta.

Pure Data tresna egokia da, bai soinu-arloko artistentzat, bai sorkuntza-eredu desberdinekin esperimentatu nahi duen edonorentzat, bide ematen baitu nork bere tresnak eraikitzeko eta DIY kodearen aukerekin esperimentatzeko askatasuna. "Open source" eta multiplataforma da (Linux, Mac, Windows).

PUBLIKO  
HELDUA

////////////////////  
**Martxoak 10 eta 11, osteguna eta ostirala**  
17:00-20:30  
Lantegia 2. Lab 2  
15€ / 12€ Az txartelarekin eta tarifa murriztuarekin. Tarifen inguruko informazioa [azkunazentroa.eus](http://azkunazentroa.eus) webgunean  
////////////////////

 [noconventions.mobi/noish](http://noconventions.mobi/noish)

 [vimeo.com/561769105](https://vimeo.com/561769105)

## Musika esperimental eta soinu-artearen hastapenetako tailerrak

Hotsetan. Azkuna Zentroaren musika esperimentaleko eta soinu-arteoko programa

Tailer teoriko eta praktikoa honetan, era ludiko atseginean, ikus-entzule gazteenek aukera izango dute soinu-esperimentazio musikalaren mugimendu eta ordezkariarik garrantzitsuenak ezagutzeko, XX. mende hasieratik orain artekoak, eta soinuarekin eta haren pertzepzioarekin plastikoki esperimentatzeko.

Martxoko saioan Judyk hartuko du parte, Iker Ruiz de Apodaka musikariarik mugitzeko askatasun osoz darabiltzan musika elektronikoaren inguruko lan-proiektuak.

Irakaslea: [Oier Iruretagoiena](#).

IKASTETXEEKIN  
ITUNDUA

////////////////////  
**Tailerrak**  
**Martxoak 14 > 18**  
**Astelehena > ostirala**  
11:00 - 13:00  
Lantegia 1  
Hizkuntza: Euskara eta gaztelania.  
15-30 urte  
**Musika esperimentalaren gida**  
Informazio gehiago:  
[info@azkunazentroa.eus](mailto:info@azkunazentroa.eus)  
////////////////////



## HEZKUNTZA PROGRAMA

# Mitusu, haur eta gazteentzako antzerki-aretoa

Martxoan, ikastetxeetako publikoa arte eszenikoekin elkartzeari ekingo zaio, [Mitusuk](#) eta Azkuna Zentroak egindako proiektuaren bidez. Programak bi antzerki-proposamen eta ikastetxeekin hitzartutako zazpi emanaldi ditu.

### Zirkozaurre *Vademecun*

Familiei zuzendutako ikuskizun hau liburutegi batean girotuta dago, sormenerako eta irudimenerako ate gisa irakurketa sustatzen duen liburutegian.

*Vademekun* berezko lengoaia eraikitzen du, espazio eszenikotik, magiatik eta akrobazien eta malabarismoaren zirku-tekniketarik abiatuta.

### Teatro paraíso *Gizon zoriotsuaren alkandora*

Teatro Paraíso konpainiak gonbit egiten die ikus-entzuleei gizateriaren abentura handienetako batean parte hartzera, zoriotsuaren bila abiatzera! Eta, horretarako, teknologia berriak antzerki-jiterik petoenarekin lotzen dituzte, eta irudi animatuen, objektuen, musiken eta egoeren unibertso bat sortzen dute, galdera handi bati erantzuteko: Nor da munduko gizonik edo emakumerik zoriotsuena?

### IKASTETXEEKIN ITUNDUA

////////////////////////////////////

#### Zirkozaurre *Vademecun*

Martxoak 14, astelehena  
11:30

Martxoak 15, asteartea  
9:30 eta 11:30

////////////////////////////////////

#### Teatro paraíso *Gizon zoriotsuaren alkandora*

Martxoak 16 eta 17,  
asteazkena eta osteguna  
9:30 eta 11:30





*Inventario del vellano. Un inventario de lo invisible*



# Bisitak eta deribak espazioan eta programazioan zehar

Azkuna Zentroan edukitzaileak eta edukiak bat egiten dute arkitekturarekin, historiarekin eta arte-sorkuntzarekin. Beraz, espazioaren eta programazioaren bidez deskubritzeko eta esperimendatzeko lekua da. Proiektu hau zer testuingurutan garatzen den jakiteko eta Zentroa bisitatzen duten pertsonen esperientzia hobetzeko, eraikinean bisitaldi gidatuak egiteko programa garatzen da, baita ibilbide iruzkinduak erakusketan zehar eta banakako deribak ere, bestelako esperientzia baten bila dabiltzanentzat.

## Bisita gidatuak eraikinean zehar

Ordubeteko bisita honetan, Bilboko Alhóndiga zer izan den eta zer den azaltzen da: hiriko ardoen, olioaren eta ozpinetakoen biltegia zena, gero Gizarte eta Kultura Garaikideko Zentro bihurtua.



### Partikularrak

Asteartea eta asteazkena:  
17:30 (euskara)  
18:30 (gaztelania)



### Taldeka

Eguna eta ordua adostuz,  
gutxienez 72 ordu lehenago



## Bisita iruzkinduak erakusketan zehar

Ordu erdiko sarrera-ibilbideak, unean-unean Zentroan ikusgai den erakusketa testuinguruan jartzeko. Erakusketa bakoitza azaltzen duten audiogidekin osa daitezke, eta horiek webgunetik deskarga daitezke.



////////////////////////////////////  
Ostegunero, 18:00etan  
eta 19:00etan (euskaraz  
edo gaztelaniaz,  
eskaeraren arabera).  
////////////////////////////////////

## Deribak

Espazioan eta pentsamenduan esperientzia desberdin bat izatea nahiago dutenek informazioa eska dezake AZ Infon, Azkuna Zentroko artista AZkide [Oscar Gómez Matak Espe López](#) artistarekin batera egin dituen deribei buruz. Partzialki zuzendutako pasiera edo ibilaldi indibidual hauetan pentsamendua beste leku batera joatea sustatzen da, inguratzen gaituena beste modu batera hautemanetz eta norbera behatzaile gisa sumatuz.

### Informazioa

Az Info / [azkunazentroa.eus](http://azkunazentroa.eus)  
////////////////////////////////////

Era berean, eskuragarri dago *Atik Zra* deriba, Gizarte Inklusioari eta Arte Eszenikoen Hezkuntzari buruzko XIII. Jardunaldien esparruan [Los Bárbaros](#) kolektibo artistikoak 2021ean Azkuna Zentroan izandako egonaldian sortua. *Atik Zra* Azkuna Zentroan barrena egindako deriba bat eta denbora-makina bat da. Ikusten ez diren gauzak ikusteko gida bat da, baita hiztegi bitxi bat ere, kode alfabetiko baten bidez espazioan zehar ibiltzera garamatzana.



*Deriben katalogoa*, Oscar Gómez Matarena



*Atik Zra*, Los Bárbaros-ena

[Prezioak eta izen-emateak Az Infon / \[azkunazentroa.eus\]\(http://azkunazentroa.eus\) webgunean](#)



# Tailer berriak Jarduera Fisikoko Zentroan 2022. urtarrila- otsaila-martxoa

Jarduera Fisikoko Zentroak hainbat publikori zuzendutako eta osasunean ardaztutako tailerrak programatuko ditu hiruhileko honetan.

- Grabitatea 0 (Hasiara eta aurreratua)
- Pelbis-zorua
- Mindfulness-a
- Euskal dantzak (familian)
- 60 urtetik gorakoentzako osasun-programa
  - Faszia-lana
  - Erorketen prebentzioa

Informazio gehiago eta izen-ematea:  
JFZ-ko informazio-mahaia

# Azkuna Zentroa argitalpenak

Azkuna Zentroaren argitalpenen corpusak arte-praktika garaikidea biltzen du, ezagutzeko eta zabaltzeko. Zentroko programazio-lerroen inguruko erakusketen, saiakeren eta liburuen katalogoek osatzen dute.

## Datozen argitalpenak:



### Roma Akademia

*Roma Akademia* erakusketaren katalogoa, Erromako Espainiako Akademiako 45 artista egoiliarrek AECIDen urteko bekaren bidez egindako obra eta proiektuekin.

Jesus Donairek komisariatutako erakusketa Azkuna Zentroko hainbat espaziotan dago ikusgai 2022ko otsailaren 6ra arte.



### Arquitecturas prematuras

#### Valcárcel Medina

*Arquitecturas prematuras* (Arkitektura goiztiarrak) lanak Isidoro Valcárcel Medinak hirigintzari eta arkitekturari buruz asmatutako proiektu guztiak biltzen ditu. Artista duela hamarkada batzuetatik ari da hiritik eta gure ingurune eraikitik elikatzen, inspirazio- eta ekintza-iturri nagusi gisa hartzen.

Izen bereko erakusketa Azkuna Zentroan egongo da ikusgai 2022ko bigarren hiruhilekoan.

#### *Arquitecturas prematuras* *Valcárcel Medina*

Kutxa + hiru koadernotxo

ISBN 978-84-091733-5-8

Orrialdeak: 96+96+80

Kutxaren tamaina: 253 x 338 mm

Argitalpen hirueleduna:

espainiera-ingelesa-euskara

49€

Caniche Editorial, MUSAC eta

Azkuna Zentroaren koedizioa

Azkuna Zentroa argitalpenak **dendAZ**. Azkuna Zentroaren Saltokian eta **dendaz**.  
[azkunazentroa.eus](http://azkunazentroa.eus)-en erosi ditzakezu

## INFORMAZIO OROKORRA

### ZENTROAREN ORDUTEGIA

Egunero 9:00etatik 21:00etara.

### BISITA GIDATUAK

#### **BISITA GIDATUAK ERAIKINETIK**

Ordubeteko ibilbidea Alhóndigatik, eraikinaren historia, eraldaketa eta egungo proiektua ezagutzeko.

#### **Partikularrak**

- Asteartea eta asteazkena, 17:30 (euskara), 18:30 (gaztelania).
- Sarrera dohainik, AZ Infon, 944 014 014 telefonora deituta edo info@azkunazentroa.eus helbidean izena eman ondoreen.

#### **Taldeka**

- Eguna eta ordua adostuz, gutxienez 72 ordu lehenago, AZ Infon, 944 014 014 telefonoan edo info@azkunazentroa.eus helbide elektronikoa bidez.
- Prezioak:  
Euskaraz edo gaztelaniaz: 60 € taldeentzat.  
Ingelesa edo frantsesa: 70 € taldeentzat.  
Elkarte eta ikastetxeentzat (aldez aurretik kontsultatu).

#### **ERAKUSKETARAKO BISITAK**

- Ordu erdiko sarrera-ibilbideak, erakusketa-gelan ikusgai den erakusketa testuinguruan kokatzeko .
- Ostegunero, 18:00etan eta 19:00etan (euskaraz edo gaztelaniaz, eskaeraren arabera).
- Sarrera dohainik, AZ Infon, 944 014 014 telefonora deituta edo info@azkunazentroa.eus helbidean izena eman ondoreen.

**Edukiera:** 10 pertsona.

Kopuru hori aldatu egin daiteke osasun-egoeraren bilakaeraren arabera.

### **AZ TXARTELA**

Az Txartelak aukera ematen dizu kultura, gizarte eta ariketa fisikoko jarduerak biltzen dituen eskaintza zabalaz gozatzeko gure zentroan. Zentroko Txartelarekin, jarduera guztien inguruko informazioa jasoko duzu aldizka, eta deskontu eta abantaila interesgarriak lortuko dituzu. Txartela emateak eta behar denean berritzeak 3 euroko kostua du.

Gogoan izan Az txartela pertsonala eta besterenezina dela. Zurekin ekarri behar duzu beti, AZ Infon sarrerak erosterakoan deskontuak izateko.

### **GOLEM ALHÓNDIGA ZINEMAK**

Informazioa eguneratua kontsulta ezazu golem.es webgunean.

### **YANDIOLA, THE BOAR, HOLA BAR**

Informazioa eguneratua kontsulta ezazu yandiola.com webgunean.



---

## IRISGARRITASUNA

Azkuna Zentroa errespetuzko gunea da, irekia eta guztientzat irisgarria. Espazioa eta programazioa etengabe hobetzeko lan egiten dugu, publiko-komunitate guztiek esperientzia gogobetezkoa izan dezaten, sorkuntza-prozesuetan parte hartu ahal izan dezaten eta kultura baldintza berdinetan probatu, partekatu eta gozatu ahal izan dezaten. Xehetasun bereziren bat kontsultatu nahi baduzu, zatoz AzInfora, Atarian dagoen informazio-gunera.



Azkuna Zentroak Irisgarritasun Unibertsaleko AENOR ziurtagiria du, UNE 170001-1 arauaren arabera.

---

## AZKUNA ZENTROA, GUNE SEGURUA



Zure maskara erabili

---

## HILEKO PROGRAMAZIOA BRAILLEZ ETA AUDIOZ

Eskatu Zentroaren programazioari buruzko informazioa Braille sisteman en AZ Infor.

Audio formatuan ere deskarga dezakezu:  
[soundcloud.com/azkuna-zentroa](https://soundcloud.com/azkuna-zentroa)



---

## KONTSULTATU PROGRAMAZIOA HEMEN: AZKUNAZENTROA.EUS



# Jar zaitez harremanetan Az-rekin

azkunazentroa.eus

Artea: [programacioncultural@azkunazentroa.eus](mailto:programacioncultural@azkunazentroa.eus)

Deialdiak: [deialdiak@azkunazentroa.eus](mailto:deialdiak@azkunazentroa.eus)

Erabiltzaileentzako arreta: [info@azkunazentroa.eus](mailto:info@azkunazentroa.eus)

944 014 014

PLAZA ARRIKIBAR, 4  
48010 BILBAO



Lege gordailua BI-249-2014

© 2019. Centro Azkuna de Sociedad y Cultura Contemporánea S.A.